

uk

180. zenbakia / 2010eko uztailaren 29a



OSPATU ETA OROITU EUSKARAZ

Ezkondu egingo zara, gonbidapenak euskara hutsean egin gura dituzu baina ez zara horretarako gai?
Zure seme edo alabaren eguna da eta gonbidapenak euskaraz egin nahi dituzu baina ez dakizu?

Euskara Zerbitzuak zorian-txartel, gonbidapen edota oroigarri ereduak batzen dituen liburuxka argitaratu du. Liburuxka kontsultatu nahi izanez gero jo ezazu iragarki honetan agertzen diren liburu-denda eta paper-dendetara. Gainera, zerrendako lehenengoetan euskara hutsean egitearren %10eko **BEHERAPENA** egingo dizute eta euskaraz eta gaztelaniaz eginez gero %5ekoa.

Udalaren web gunean ere aurkituko duzu: www.getxo.net

OHARRA: liburuxkan behar duzun testua aurkitzen ez baduzu, Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzura jo dezakezu, geuk lagunduko dizugu.

Tlf: 94 466 00 10 gehi@getxo.net

Argazki Lur Villamonte *	94 430 27 71
Librería Zugatzarte *	94 460 33 21
Kalko Kopiak Inprenta *	94 491 29 83
Troa Librerías *	94 423 57 55
Arnaga	94 460 79 32
Behin Batean	94 430 74 03
Cosas	94 430 37 86
Foto Iñaki	94 430 67 04
Foto Ricardo	94 460 80 04
Foto y Papel	94 491 22 44
Librería Itziar	94 430 73 26
Proplanos	94 430 92 03
Bolivar Elordui Liburudenda	94 463 90 98
Cianoplan	94 464 85 72
Fotocopias Kiser	94 464 73 37
Imprenta Arenas	94 463 84 23
Koprinter	94 406 05 95
Ladredo Hermanos	94 463 91 75
Librería Nadal	94 463 62 45
Sercopi	94 464 89 93

* DESKONTUA EGINGO DIZUTE



EUSKARA.BIZI

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte
HELBIDEA: Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 94 491 13 37
ZUZENDARIA: Maitane Nerekan
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Zuberoa Iturburu, Maitane Nerekan
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega, Irantzu Sagaminaga
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepon Euskara Elkarte
MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (94 491 13 37)
AHOLKULARITZA: Jokin Aspuru
FILMAZIOA: Argia / **INPRIMATEGIA:** GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen Topaguneko partaide da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



WWW.RENAULTLEIOA.COM

Leioa Berri Auto

- Ibilgailu berriak
- Aukerako ibilgailuak
- Tailerra
- Autokarabanak

HARTU TXANDA ONLINE - CITA ONLINE

WWW.RENAULTLEIOA.COM

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Torrene kalea, Algorta.
7. LEHEN ETA ORAIN. Arluze, Getxo.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Loli Igartua, Gortiz.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Eskualdeko jaiak.
28. ARGAZKIA. Bigantxak *Behekoan*, argazki zaharra.
30. BERBETAN. Maialen Lujanbio.
34. FOTOGRAFIA. Mikel Cantalapiedra.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Erromoko jaietako "Memento Laborra" ekitaldia.
43. MUSIKA. Getxoko Guaitorock musika jaialdia.
44. LIBURUAK. Iban Zalduaren ipuin-antologia.
45. KIROLAK. Surf eta bodyboard txapelketak Sopelan.
46. ELKARRIZKETA. Jokin Aspuru, *Getxophoto*.

AMAITZEKO

49. NORA JOAN. Izarraitz, Plentzia.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Algortako Portu Zaharreko Jaietan, 1940.
54. AITORMENAK. Aintzane Uri, Luhartz taldeko abeslaria.

Azala: Mikel Cantalapiedra



30 Maialen Lujanbio

Berbetan

Algortako Bertso Jaialdi Mundialean egin dugu topo Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako irabazleagaz



11 Loli Igartua



54 Aintzane Uri

Leihatila

> Aiala Elorrieta

Proiektua

Jaioberri bat altzoan eduki izan dudanean, askotan pentsatu izan dut: miresgarria! Eraikitzen hasi berri den mundu txiki bat! Oraindik, erabat kutsatu gabe, eta diskriminaziorako lekuri ez duena. Ume batek ez luke genero bereizketa kontzeptua ulertuko. Ez luke ezta ere inongo desberdintasunik ikusiko Ekuadorren jaiotako klasekidearen eta Berangon jaiotakoaren artean. Ez luke ez inolako desberdintasunik ikusiko, harik eta guk irakasten diogun arte. Berdintasun osoan hezi nahiko genituzke, baina, zorionez edo zoriotzarrez, eta asmo onez bada ere, guk kutsatzen ditugu. Umeak proiektu bat diren heinean, aurreproiektatu dugunaren eta emaitzaren artean, saltoa itzela izan daiteke. Guk era batean hezi nahi genuena, azkenean, beste era batean egiten dugu. Antzera gertatzen da, lagun giroan mundua konpontzen hasten garenean. Munduko arazo guztiak konpontzeko saiakera horietan, "egingo nuke" "ez nuke egingo" esaldiekin hasten gara. Baina, konturatu orduko "debekatuko nuke" edo "behartuko nuke" gisako esaldiez bete egiten dugu, eta errepublika irudikari gisa sortu duguna, tirania txiki batean bilakatu dugu.

gu geu**Ondo pasa eta bueltak/n...**

Arnasa sakon hartu eta lasaitu ederra hartuko dugu, argiak itzali eta bulegoko atea ixten dugunean. Bai, lagunak! Hau duzue UK-ko azken zenbakia, udako oporren aurretik (gure oporrak noski, zuenak auskalo noiz diren...). Baina joan aurretik, aldizkariari buelta erdia emoten ahaleginduko gara: hemendik zer kendu, han zer ipini... Espero dugu iraileko lehenengo zenbakian gustuko ezustekoren bat aurkitzea: kolaboratzaile barriak, atal barriak... Ikusteko dago...

Momentuz 180. zenbakiagaz uzten zaituztegu. Lasai irakurri dezakezue, hondartzan etzanda eguzkia hartzen zaudetela. Mikel Cantalapiedraren argazkiak gozatu, Maialen Lujanbioren berbetatik ikasi, irailean egingo den Getxophoto argazki jaialdiaz gehiago jakin e.a. Gogoratu UK-k zuokaz jarraituko duela, interneten: www.ukaldizkaria.biz helbidean gaude; bertan dituzue argazkiak, aldizkariaren artxiboa eta azkeneko zenbakia ere!

Itxaroten zaudetenentzat, gogoratu irailean *Getxo akordaten naz 2* dokumentalaren kopiak helduko direla; formalak izanez gero, agian, emanalditxo berezia ere antolatuko dugu. Baina, hori guztia, irailean izango da...

Bitartean, ondo pasa, gitxi gasta eta bueltak UKri!

UK-ko lantaldea**Iritzia**

Udako oporren aurreko azkeneko zenbakira honetara, Getxoko Bai Udalbiltzari Babes Taldeko lagunek bidalitako iritzia ekarri dugu. Hona hemen:

Udal hautetsiak aske!

Udalbiltza, Euskal Herriko Udal eta udal hautetsien Biltzarra, 1999ko irailaren 18an zazpi lurraldeetako ia 1.800 hautetsi Bilboko Euskalduna Jauregian bildurik sortu zen. Euskal Herria nazioa dela aldarrikatzea, egituraketa politikoa

eraikitzen laguntzea, nazio eraikitzea, herrialde guztietako udalerrien arteko harremanak bultzatzea eta nazioartean Euskal Herriaren berri ematea dira

sorrera unean adostutako helburuak. Getxoko Udalak 1999ko azaroko Osoko Bilkuran adierazi zuen bertako kide izateko borondatea.

Baina hautetsi askoren lanari esker ekimen eta jarduera anitzak aurrera eramaten ari zirenean, Baltasar Garzon Auzitegi Nazionalako epailearen aginduz 2003ko apirilaren 29an Espainiako Polizia Udalbiltzako egoitzetan sartu zen,

Udalbiltza Partzuergo eta Kohesio eta Garapen Funtza erakunde publikoak desegin, diru kontuak blokeatu, -horrekin batera Zuberoa Garatzen egitasmoa bultzatzeko herritarrengandik bildutako 400.000 euroak lapurtu zituzten- eta Udalbiltzako 13 arduradun zein langile atxilotu eta espetxeratu zituzten.

Uztailaren 15ean hasitako epaiketan, instituzioa bera legez kanpo utzi nahi izateaz gain, "erakunde terroristako kide izatea" leporatzen diete hautesleek agindutako lan politiko eta administratiboa burutzeko beste delituri egin ez zuten 22 lagunei, udal hautetsiak edo Udalbiltzako langileak denak. 10 urtetik 23 urtera arteko espetxe zigorrak eskatzen dituzte euren zat.

Euskal Herriko eta nazioarteko beste ahots, eragile eta erakunde askok bezala Getxoko Bai Udalbiltzari Babes Taldeak Euskal Herriko Nazio instituzioak bere jarduerarekin aurrera jarraitzeko zilegitasun osoa duela aldarrikatzen du eta Udalbiltzaren kontrako erasoak, zein inputaturik dauden 22 kideen aurkako epaiketa bertan behera uztea eskatzen du.

Erasoak geldiarazteko helburuarekin Getxon 200dik gora pertsonen eta zenbait elkarte eta taldeen sinadurak batu ditugu, epaiketak auzipetuei ekarriko dien 200.000 euro inguruko xahutzeari aurre egiten laguntzeko diru batzuk bildu ditugu, -ekarpenetarako Euskadiko Kutxako 3035 0071 63 0711124600 diru kontua ireki dute auzipetuek- eta uztailaren 10eko ekitaldi publikoan babesa adierazi genien epaituak izaten ari diren lagunei.

Elkartasuna zabaltzen ari zaretenoi eta hilaren 17an Bilbon nazio manifestazioan parte hartu zenuten Getxoko eta Uribe Kostako herritar guztioi ere eskerrik asko, danon artean lortuko dugu eta!

Mari Espe Fuertes,
Getxoko udal hautetsia

(GETXOKO BAI UDALBILTZARI
BABES TALDEAREN izenean)



[irudia]

ALGORTA, 2010EKO UZTAILA

100 metroko hesi-lasterketa / Hori da marka, hori! Nahiko lan daukate getxohtarrek kalean ibiltzeko uda honetan Erromon, Areetan Bizkaiko Zubiaren ondoan, Algortako erdigunean eta abarretan. Azkeneko auzo horretan zenbait kaletako zorua guztiz altxatuta dago eta dendetara sartzeko pasabideak ipini behar izan dituzte. Torrene kalea zeharkatzen ahalegindu zarete? Irudian ikus daitekeenez, atletismo-pista ipini dute hesi-lasterketa egiteko, baina hemen Carl Lewisek ere hautsiko luke bere marka, egindako marka txarrenetik behera, jakina! ○ / Argazkia: Asier Mentxaka



EZ ITXARON GEHIAGO! ZATOZ EUSKALTEGIRA.

Euskara ikastaroak ERANDION 2010-2011

- Euskaldunte eta alfabetatzea
- HABE 1 + HABE 2 + HABE 3 tituluak
- Hizkuntza eskakizunak
- Ordu-tegi guztiak
- Euskara zerbitzuaren beka eta dirulaguntzak
- Ekitaldiak euskaraz
- Autoikaskuntza
- Xede berezietako taldeentzako eskolak

IZENA EMATEKO EPEA
Irailaren 2tik 21era



Iraganez doa denbora* beti / ARRILUZE, GETXO

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.



Noiztik jasotzen duzu UK?
Nork irakurtzen du etxean?
Zein atal maite duzu gehien?
Zer aldatuko zenuke?
...

**Hobeto ezagutu
gura zaitugu**

IRAILEAN GURE DEIA JASOKO DUZU
ESKERRIK ASKO ZURE ARRETAGATIK



uribitakora > hiru hankaren hiru istorio



Algortako Urgul kalea

Testua: **Xa2 Paya** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: *Gai horrek badu mamia*

Hanka sartu ote nuen
duda daukat oraindik,
mina zapaldu izanaz
nik ez nuen errurik!
Azken aldian ez zeukan
ez hanka ez bururik,
esaten zuen "hanka bat
zeruan dut jadanik"...
Gaur hemen esnatu naute
antzerako lagun bik:
behin hanka egin ninduen
orain hanka egin dit.

Niri atzo egin zidan
azken agur beroa:
poltsa batean itotzen
saiatu zen, eroa!
Nekosoa egin zaio
hankaren endredoa,
erosotasun betean
bizi nahi du geroa!
Nirekin emanagatik
pauso sendo mordoa
bizitza orain harentzat
gurpil gainean doa.

Ni ortopedistak bota
ninduen hona, kanka!
Bere erakuslehoan
eman arren xarmanta,
eroslerik ez zetorren,
ezin zuen aguanta
eta merkaturik eza
izan zen azken tanta.
Hankaondo orok badu
hezur-mamizko hanka,
zaborretan amaitzea
bai destinu galanta!

getxo > atzoko eta gaurko Portu Zaharra, Barbarella tabernan



Barbarella taberna: Euskal Herria 2, Algorta.

Hogei albumek osatzen dute *Atzoko eta gaurko gure portua* erakusketa, Algortako Barbarella tabernan (goiko solairua) ikus daiteke. Ez da ohiko erakusketa, argazkiak ez dituzuelako topatuko koadroetan edo paretatik zintzilik, ondo ordenatutako koadernoetan baino. Oro har Portu Zaharreko argazkiak dira, baina badaude Getxoko beste batzuk ere. Antzinakoak dira batzuk, gaurkoagoak besteak; halere, barrienak ere sepia kolorean argitaratu dituzte, aspaldikoak hobeto buztar daitezten. Hainbat mahaitan banatu dituzte albumak eta sarrera librea da. Irudi bitxi asko ikus daitezke, eta zenbait argazkik historiako pasarteak ere gordetzen dituzte, berbarako: Portu Zaharreko igerileku ohiak jendez lepo, Mirenen denda edota desagertutako etxeak eta pasarteak. Horrenbestez, algortarren memorian gordetako irudiak bertatik bertara ikusteko aukera atsegina daukazue uda honetan. ○

euskal herria zuzenean > jaialdiari laguntzeko kanpaina

Laguntzeko, Jaialdiaren webgunera jo daiteke: www.ehz-festibala.com

EHZk bizi behar du! kanpaina abiatu dute, jaialdiari laguntzeko. Uztailaren 2tik 4ra ospatu zuten Euskal Herria Zuzenean Heletan, Nafarroa Beheran, baina ekaitzak lehen eguna zapuztu zuten: soinu-ekipoak hondatu zituen eta kontzertuak bertan behera utzi behar izan zituzten; 200.000 euroko galera eraginez. Jaialdi herritarra da eta autofinantzazioaren bidez antolatzen dena. Beraz, orain laguntza behar dute, Jaialdiak biziraungo badu; elkartzasuna oinarritzkoa da datorren urtean 16. edizioa egin ahal izateko. Laguntza ondoko helbidera bidal daiteke: *EHZ, 4 Francis Jammes karrika, 64240 Hazparne*. Ostera, eta ekaitzak ekaitz, 16.400 lagun hurbildu da aurrean Heletara, eta zapatuan zein domekan musika eta giro bikainagaz gozatu zuten; segi dadila horrela izaten! ○

Luberr Basolanak, SL
Axe ibalartza 26A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 10 38
Tf. :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberr@euskalnet.net
www.luberr.biz

- Soropila ezartzea
Luzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta eralte lanak.
- Soropila zaintzea eta mantentzea
Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzes eta destrinkotzea, berrelkatzea, scropili gaitzak eta belar gaitzoak tratatzea.
- Inausketak
Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaitza apaingarriak inaustea, erabateko inausketak.
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

saiazgetaria
HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa

...hamia ...lehengo garaiak... ...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

[talaia]

uribe kosta > gazte martxa irailaren 17tik 19ra, Erandiotik Plentziara



Aurreko edizio bateko irudia, Barrikan

Uda honetan Gazte Martxak egiten dabilta Euskal Herri osoan gazte independentistak. UK Martxa ere prest dago, irailaren 17tik 19ra izango da. Gazteek *“herri honek duen aukera bakarra independentzia dela”* erakutsi gura dute, eta horregatik, ezagutzarako eremua ere izango da martxa: hainbat ekintza eta ekimen prestatu dute gazte problematikari eusteko eta arazo horien irtenbideen eta alternatiben gainean berba egiteko. Seigarren UK Martxa izango da aurtengoa eta Erandiotik Plentziarainoko ibilbidea egingo dute, *“Gazte borroka Uribe Kosta eraiki!”* goiburuagaz. Hainbat ekimenen eta hitzaldiren ostean helduko dira domekako bazkaria eta kontzertuak, eta asteburu osoan, *“independentziaren aldeko olatu gazte batek zeharkatuko du Uribe Kosta”*. Hala, gazte independentistek eskualdeko gazte denek martxan parte hartzeko eta *“independentziaren aldeko oihua eskualde osoan zabaltzeko”* deia egin dute. ◯

plentzia > kanpoko margo lehiaketa irailaren 4an



Lehiaketaren gaia Plentzia izango da

Plentziako VIII. Kanpoko Margo Lehiaketa irailaren 4an egingo dute. Egunean bertan (09:00-10:00) emon beharko da izena Udaletxean, eta 16 urtetik gorakoek parte hartu dezakete. Hainbat euskarri eroan ahalko dira, baina ez dute onartuko zirriborrorik edo seinalerik euskarrien gainean. Gaia *“Plentzia”* izango da, zelan ez, eta teknika, librea. Parte-hartzaile bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahalko du, beti ere 60x50 zm. baino handiagoa. Lanak 17:00etatik 18:00ak bitartean aurkeztu beharko dituzte Udaletxean. Arte plastikoakaz harremana duten pertsonak osatuko dute epaimahaia eta euren erabakia apelaezina izango da. Bost lan saritzea aurreikusi dute, baina sariren bat emon barik utz dezakete. Lanak Udalaren esku lotuko dira, eta aurkeztutako danakaz erakusketa egingo dute. ◯



“Zuzentzen jakin arren, zaila da emanaldi borobila lortzea”

Loli Igartua > Gorlizko Lirain Abesbatzako zuzendaria

Sortutako edo lagundutako proiektu guztiak zerrendatzea zaila da Loli Igartuarentzat, zerrenda amaiezina baita: Gorliz irratiko lehendakaria, katekista e.a. Geldirik egon ezin duen horietakoa izanda, musika eta, batez ere, Lirain Abesbatza izan da urte hauetan guztietan denbora gehien kendu eta poztasun handienak emon dizkiona. Abesbatzako lehenengo zuzendaria izan zen; kargua beste esku batzuetatik pasa eta gero, zuzendaritza barriro hartu zuen orain urte batzuk, Armonia ikasketak amaitutakoan. Umeen taldeko sortzailea ere izan da gorliztarra: *“Geroz eta gehiago gustatzen zait”*. Udan zehar hainbat emanaldi egin ditu Lirainek; hala ere, eguneroko lana da interesgarriena Igartuarentzat: *“Abesbatza zuzentzea ikaragarri gustatzen zait. Zuzentzen jakin arren, zaila da emanaldi borobila lortzea; barriro lanean hasteko arrazoia emoten dizun zerbait lotzen da beti”*. Geroz eta emakume gehiago ikusten dira abesbatzak zuzentzen: *“Leku guztietan bezala”*. Urtero legez, Habanera Jaialdia egin dute uztailean Santiago jaien barruan; eta Igartuak paper garrantzitsua bete zuen Jaialdiaren sorreran: *“Gorlizko herriari eskainitako letra asmatu nuen eta doinua egin zuenak habanera erritmoan ondo geldituko zela pentsatu zuen. Horrela hasi zen Jaialdia”*. Deialdi zabalagaz amaitu du: *“Jendea parte hartzera animatu gura dut, sama zaintzeko modu ona da abestea”*. ◯ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Areetan
Villa de Plentzia, 6.
T 94 464 90 87
E areeta@cianoplan.es

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

Parranda non, jendea han!

Abuztuaren 2tik 8ra Erromo eta Pinuetako jaiak gustu guztientzako egitarauagaz datoz; ostean, **Portu Zaharrekoek** hartuko dute lekukoa, **hilaren 12tik 15era**

Ekitaldi batzuk

ERROMO ETA PINUETA

- **Abuztuak 2:**
 - Umeentzako jolasak (Sta. Eugenia 12:00)
 - Irrintzi lehiaketa (Sta. Eugenia, 16:30)
 - Goitibeheren kalejira (19:30)
 - Fashion Gaua (Cervantes, 23:30)
- **Abuztuak 4:**
 - Koadrilen olinpiadak (Cervantes, 17:00)
 - Pregioa eta txupina (Sta. Eugenia, 19:30)
 - Las Fellini (Ganeta; 23:00)
 - Kontzertuak (Sta. Eugenia 23:00)
- **Abuztuak 5:**
 - Herri krosa (Sta. Eugenia 23, 19:30)
 - Berto saioa (txosnagunea, 21:00)
 - Atadxs a nada eta S.A. (Txosnak, 23:00)
- **Abuztuak 6:**
 - Mosteo rallya (txosnagunea, 13:30)
 - Poteo rallya (Gobelondo, 17:00)
 - Koadrilen playback (txosnagunea, 22:00)
- **Abuztuak 7:**
 - Aerobic (txosnagunea, 13:00)
 - Berto-jira (txosnagunea, 19:00)
 - Ska-reggae gaua (txosnagunea, 21:30)
- **Abuztuak 8:**
 - Tortilla txapelketa (Artaza, 12:00)
 - Euskal mitologia (txosnagunea, 12:00)

PORTU ZAHARRA

- **Abuztuak 12:**
 - Txupina (Getxo Antzokia, 10:00)
 - Umeen jaitsiera (Aldapatik, 12:15)
 - Nagusien jaitsiera (Aldapatik, 18:00)
- **Abuztuak 13:**
 - Igel txapelketa (Etxetxun, 13:00)
 - Altxaldiak (portuan, 17:30)
 - Esne Beltza (txosnagunea, 22:30)
- **Abuztuak 14:**
 - Ur jolasak (portuan, 10:00)
 - Sokamuturra (portuan, 11:30)
 - Kantu poteoa (kaleetan zehar, 19:00)
 - Koadrilen ikuskizuna (txosnak, 22:00)
- **Abuztuak 15:**
 - Marmitako (Portu Zaharra, 9:30)
 - Bertsolariak (Plazan, 17:00)



Erromoko eta Pinuetako lagunek abuztuaren 2tik 8ra egingo dituzte jaiak

Atsedena gura duen getxoartzarrik baldin badago, jai dauka udan! Izan ere, *sainazioak* atzean lotu badira ere, jai giroak jarraitu egingo du abuztuan. Jai batzordeetako lagunek gogor egin dute behar eta dena prest dago.

Erromo eta Pinuetako Jaiak, astebe- bez luzatuko dira, abuztuaren 2tik 8ra. Goizetik gauera, adin eta gustu guztientzako ekimenak daude aukeran. Ekintza gehienak Santa Eugenia plazan egingo dira, nahiz eta Cervantes eta Gobelaurre plazak eta auzoko tabernak eta kaleak ere jai giroagaz bustiko diren. Hilaren 2ko izarrak goitibehera txapelketa eta Fashion Gaua dira; eta martitzeneko atsedenen ostean, txupin "ofiziala" bota eta eten bako parranda hasiko da. Las Fellini, Trokolo, Bunker 8 eta Usain musika taldeen kontzertuak eguaztenez, S.A. tal-

dearena egunean, Ska-reggae Gaua zapa-tuan e.a. Gauaz bizi gura dutenek badute non aukeratu. Goiztiarrek, ostera, gastronomia txapelketan, bertso-jiran, erakusketetan eta beste hainbat ekintzatan parte hartu ahal izango dute.

Portu Zaharreko bizilagunek abuztuaren 12tik 15era bitartean jantziko dute zapia. Ohiturari jarraituz, koadrilen txapelketarako puntuak lortzeko balio duten jaitsiera, sokamuturra eta altxaldiak izango dira egitarauko izarrak. Hala ere, ez dira bestelakoak faltako: umeentzako zinea, sardina-jana, bertsolariak e.a. Domekan, hilaren 15a, Marmitako txapelketan oheko arropa kendu barik ikusi ahal izango ditugu herriko gizon-andreak. Goizeko 9:30ean hasiko dira marmitak berotzen eta 17:30ean jakingo dugu nor den aurtengo irabazlea. o

Aitzakiarik ez!

Euskaltegiek datorren ikasturtea prest dute



"Beharizan guztietarako" ikastaroak prestatu dituzte

Ez dago aitzakiarik mingaina euskaraz dantzan ez ipintzeko; Getxoko Euskaltegiek 2010-2011 ikasturterako eskaintza prest daukate dagoeneko.

Udal Euskaltegietan 8 ikastaro egongo dira aukeran, berbarako: egunean bost orduko bost hilabeteko (urria-otsaila edo otsaila-ekaina) ikastaro trinkoa eskainiko dute. Lasaiago hartu gura dutenentzat, bi ordu eta erdiko eta bi orduko ikasturte osokoak daude. Gramatika ikastea alde batera utzi, eta mihiari eragin gura dutenei mintzamina lantzeko aukera emongo diete astean sei orduz. EGA azterketa prestatu behar dutenek urtarrilaren 19tik ekainaren 2ra egingo den ikastaro berezia dute. Amaitzeko Euskara Zerbitzuarekin elkarlanean antolatzen diren AISA (etorkinei begirakoa) eta DENDAKETAN

(ostalaritzan behar egiten dutenei zuzendua) oinarritzko ikastaroak ere badaude.

Bestalde, Lauaxeta AEK Euskaltegiak, 1A, 1B, 2 ta 3. mailak lortzeko, egunean bost orduko edo bi orduko ikastaroak prestatu ditu. Udal Euskaltegietan legez, AISA ikastaroa emongo dute astean egun bitan eta bi orduz. HABA perfilak lortzeko, eskaintza bera egongo da. Horrez gainera, mintza-saioak, autoikaskuntza ikastaroak eta enpresa, eskola edo udal-langileentzako ikastaro bereziak antolatuko dituzte. Eta garrantzitsuenak: Korrika 17ri harrera beroa egingo diote!

Matrikulazio epea irailaren 23a arte egongo da zabalik Udal Euskaltegietan, eta irailaren 29a arte Lauaxeta AEK Euskaltegian. o

Informazio gehiago: www.getxo.net

BOLUE FUTBOL ZELAIK DATORREN

DENBORALDIRAKO PREST

Bolue 1 eta 2 futbol zelaiak prest egongo dira irail amaieran hasiko den futbol denboraldi ofizialerako. Getxo Kirolak belar artifiziala barritzen dabil; gainera, zelai barri batez eskaintza zabalduko du. Azkeneko hori Fadurako antzinako lur-zelaian egongo da. Arraultzaldeon, Iturgitxi, Getxo, Andra Mari, San Nikolas eta Bizkerre getxoartzar taldeetan dabilzanek aurre denboraldirako erabilgarri izango dituzte gune hori eta beste instalazioak ere. Bestalde, behin-betiko txostenak aldekoak badira, Fadurako atletismo pista barria ere irailaren amaierarako bukatuko dute.

UDAL PROIEKTUAK KUDEATZEKO IKASTAROA LANGABETUENTZAT

Gizarte, Iraunkortasuneko eta 2.0 plataformetako barrikuntza-proiektuen kudeatzaile izateko ikastaroa antolatu du Getxolanek, udalerriko langabeei lan munduratzeko errazteko helburuagaz, arreta berezia ipiniz lana lortzeko zailtasunak dituzten pertsonengan. Ikastaroan izena emateko epea irailaren 8ra arte egongo da zabalik, berori Algortako San Martin kaleko 17. zenbakian dagoen bulegora hurbilduz edo 94 466 01 40 telefono-zenbakira deituz egin daiteke.

OINEZKOENTZAKO GUNEA AREETAKO URKIJO KALEAN

Areetako Urkijo kalean, Andres Larrazabal eta Club kaleek aipatutako kaleagaz bat egiten duten bitartean egindako lanen ostean, merkataritzarako eta oinezkoentzako beste gune bat egongo da hemendik aurrera; Paulino Mendibil eta Andres Larrazabal kaletetan daudenak bat eginez. Oinezkoentzako bidea hobetu eta inguruko merkataritza eta ostalaritza dinamizatzeko helburuagaz egin dituzte lanok, eta aparkalekuak, espalo estuak eta ibilgailuentzako bide bakarra kendu dituzte.

Etxeart

Eraikuntza / Barrikuntzak
Zurezko Egiturak



Sagastikoebue Industrialdea
Etxalde 2 - Pablio 11
48330 Gorliz

Mob.: 607 148 346
Tel.: 945 773 144



<http://www.etxeart.com>

Ukabilkada > azken kontzertua *saninazioetan*, uztailaren 29an

“Ezagutu dugun jendea da gure ibilbidea gehien aberastu duena”



Ukabilkada musika taldeko kideak

Mikel Piñeiro eta Martin Etxegararen berbaldi batetik sortu zen **Ukabilkada** musika taldea 2003ko udaberrian. Gaur egun, Piñeiro berak, **Unai Gorosikak, Ander Lasak eta Iñigo Mentxakak** osatzen dute taldea. **Taberna, gaztetxe eta plazetan** ikusi ahal izan ditugu urte hauetan guztietan, herrian bertan zein herritik kanpo. *Saninazioetan*, hilaren 29an, azkeneko kontzertua emongo dute; lagun artean, euren ibilbidearen errepasoa egin eta oparixoren bat ere eskainiko diete entzuleei. Esan digutenez, esku onetan dago herriko “kaleko musikaren” etorkizuna.

—Zelakoa izan zen taldearen sorrera?
—Martin eta biok (Mikel) batu ginen talde bat sortzeko gogoakaz. Martinek baxua jotzen zuen; bateria eta gitarra bila ibili eta aurkitu genituen. Handik urte bira, gitarra barria sartu zen. Ondoren, baxu barria bilatu behar izan genuen, Martin kartzelara joan zelako.
—Zelan definitzen duzue zuen estiloa?
—Kaleko musika egiten dugula esaten dugu, *street punk* delakoa.
—Zer dela eta azkeneko kontzertua?
—Arazo nahiko ditugu batzeko. Gaine-

ra, herri honetan arazo asko daude jartzeko: ez dago lokalik, ez dago laguntzarik... traba gehiegi; nazkatu gara.
—Zelakoa izango da azken kontzertua?
—Abesti guztien errepasoa egingo dugu; sorpresaren bat egongo da. Oso sinpleak gara horretan ere. Erasoka izeneko Algortako taldeagaz joko dugu, oraina eta etorkizuna direnak, eta Santutxuko Solte taldeagaz, lagunak direnak. Lagun artean batu gara eta Algortako Jaietako lehen eguna aukeratu dugu.
—Zelan ikusten duzue herriko musika

sorkuntzaren panorama?

—Orain oso ondo. Gu hasi ginenean talde asko zeuden baina gure estilokoak oso gutxi. Musika modernoa zen nagusi, ez dakigu ondo zelan definitu estilo hori. Orain gure estiloko talde barri asko ikusten ditugu. Agian gehiago entzuten da eta horregatik animatzen dira jotzera.

—Zer falta zaie herriko musikariei?

—Lokalak, ez bakarrik entseatzeko, baita jotzeko ere. Udaletik jateari utzi behar diogu; askotan esaten dugu Udalak diru gehiago emon beharko lukeela. Baina, agian, taldeak batu eta Udalagaz kontatu

«Taldeak batu eta Udalaren laguntza itxaron barik egin beharko genituzke gauzak»

barik egin beharko genituzke gauzak. Azkenean, taldeak batzen badira edonon jo dezakete, plaza batean, tabernatan e.a.
—Zortzi urte hauetatik zergaz lotzen zarete?

—Ezagutu dugun jendeagaz; hori izan da gure ibilbidea gehien aberastu duena. Euskal Herri osoko lagunak egin ditugu; horrek poza ekarri digu alde batetik, baina tristura ere. Urte hauetan guztietan, gure ondokitu kendu dituzte lagun horietako asko eta hori gogorra izan da. Eurei eskainiko diegu azken kontzertua.

—Badaukazue emanaldi kuttunen bat?

—Algortako Traganarru tabernan lehen aldiz jo genuenean; jende asko egon zen, nahiz eta diskorik ere ez genuen. Taberna txikia, bero handia... baina gustura. Kontzertu guztiek daukate zerbait berezia.

—Hemendik aurrera...

—Orain geldialdia egingo dugu, baina ziur asko noizbait bueltatuko gara; beti gelditzen da grina hori. Bakoitzak gure aldetik jarraituko dugu momentuz. ○

Munduko musikak

Folk Jaialdia Areetako Santa Eugenia eta Geltokia plazetan, **irailaren 9tik 12ra**



Mahala Rai Band talde errumaniarra

Herri baten kulturaren adierazle esanguratsuenetakoa da musika. Getxo Folk Jaialdian munduko hainbat bazterretatik gurerara etorritako musikariak batzen dira. Aurten, XXVI. Getxo Folk Jaialdia, irailaren 9tik 12ra egingo da eta hiru ataletan banatuta egongo dira emanaldiak. Horrez gainera, haurrentzako saio didaktikoa prestatu du Andres Isasi Musika Eskolak Jaialdiko larunbaterako, goizeko 12:00etan Santa Eugenia plazan.

Saio nagusiak Areetako Geltokia plazan izango dira, 20:30ean. Bertan entzun ahaliko dira Britainia Handiko Oysterband, Errumaniako Mahala Rai Band,

Hegoafrikako Ladysmith Black Mambazo eta Euskal Herriko Xabi Aburruzagaren doinuak; azken horrek, diska barria aurkeztuko du. Geltokia plazako kontzertuetara sartzeko sarrerak abuztuaren 2tik aurrera egongo dira eskuragai.

Santa Eugenia plazan arratsaldero (18:00) doako saioak egingo dira, bertan jardungo dute Injuve, La Bruja Gata, Ropa Tendia eta Efeleson taldeek. Plaza berean, baina 22:30ean, *Munduko Terrazak* izeneko kontzertu sortaren barruan, Cuencako Judith eta Sevillako La Selva del Sur taldeek joko dute; azkeneko ikus-kizun horiek ere doan izango dira. ○

SAN LORENTZO AZOKA BIOTZ ALAI PLAZAN

San Nikolas enparantzako lanak direla eta, Biotz Alai plazan eta Algortako Batzokiko patioan egingo da abuztuaren 10eko San Lorentzo Azoka. Goizeko 10:00etan hasiko dira baserriarrak euren produktuak saltzen. Erakusketa eta txapelketa ere egongo da eta iluntzean, 21:00etan, Biotz Alai abesbatzaren entzunaldiaz gozatu ahaliko da izen bereko plazan.

UDAKO LIBURUTEGIAK ZABALIK ABUZTUAN

Abuztuaren 27a arte egongo dira zabalik umeei eta gaztetxoei begirako Udako Liburutegiak. Aurten Areetako Geltokia plazan, Algortako Iturgitxin eta Getxoko (Andra Mari) Sarrin ipini dituzte etxolak. Astelehenetik barikura 12:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 20:30era daude zabalik. Liburuak irakurtzeko aukera eskaintzeaz gainera, jolas tradizionalak eta mahai jokoetan olgatzeko zein eskulanak egiteko aukera dago.

BEGIRALE IKASTAROAN IZEN-EMOTEA IRAILEAN

Irailaren 13tik 30era bitartean (egunero 13:30a arte; elkarteko bulegoan, Martikoena 16) egongo da zabalik Bizarra Lepoan Euskara Elkarateak, Urtxintxa Eskolaren laguntzagaz, antolatzen duen begirale ikastaroan izena emoteko epea. 200 ordu teoriko eta 120 ordu praktikoko izango ditu, eta parte hartzeko baldintzak hauek dira: 18 urte beteta izatea edo 2010eko abendua baino lehen betetzea eta elkartegintzarekiko konpromisoa erakustea.

LANGABEENTZAKO IKASTAROA GETXOLANEN

Getxoko Udalak langabeei begirako Informazioa eta Herritarren Arretarako Laguntzaile izateko prestakuntza-ibilbidea antolatzen du. Ikastaroan parte hartzen dutenen %60a kontratatzea aurreikusten dute. Izena emoteko epea irailaren 8a arte dago zabalik (San Martin 17, Algorta).

lagusana
liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
lagusana@lagusana.net

Salva, Goro eta Maza > Pinuetako jaietako sukaldaritza txapelketako epaileak

“Koadrila batzuk nahiko kabroiak dira, eta pizza jan ostean, hondarrak aurkezten dituzte plater legez”

Hirukote ezaguna da auzoan; sukaldari finak omen Pinueta-Erromoko jaietako sukaldaritza lehiaketako epaile dira: Salva Cavia, Jon Gorozika Goro eta Jesus Mari Perez Maza.

—Zergatik aukeratu zintuzteten Txapelketako epaile izateko?

—Janariaren inguruan zerbait badakigulako; sukaldaritza gainean ez, baina zelan jaten den bai! Sinpatikoak gara eta gorputz ederrak dauzkagu. Dan-danakaz egiten dugu berba, gazte guztiakaz, eta auzoa maite dugu. Jaiak bultzatzeko egiten dugu, laguntzeko.

—Noiz hasi zen Txapelketa?

—Hirugarren urtea da. Koadrilen Eguna da Pinueta-Erromoko jaietan eta sukaldaritza txapelketa estralurtar-edo egiten dute: ez da plater bakarrik aurkezten, baikoitzak gura duena prestatzen du; zenbait tek prestatu ere ez. Koadrila batzuk nahiko kabroiak dira, eta pizza jan ostean, hondarrak aurkezten dituzte plater legez. Ez dugu izenik esango...

—Eta orokorrean, zelako maila dago?

—Beno, badaude maila nahiko ona daukaten koadrila batzuk, baina gainontzekoak tira, girotuta etortzen dira... Halere, urtetik urtera maila gora da, gero eta



Abuztuaren 2an izango da txapelketa, Pinuetako Cervantes plazan

gehiago lantzen dituzte platerak. Baina gero eta plater desberdin gehiago ere jartzen dute, zailagoa da neurtzeko.

—Nola moldatzen zarete horren plater desberdinak epaitzeko?

—Hor dago koska. Epaitzen ditugu zaporea, gatz aldetik zelan dagoen, aurkezpena etab. Azkenean, gustuko duguna saritzen dugu.

—Aurten zelan dator lehia?

—Koadrilaren batek esan digu ustekabe-

ren bat egongo dela. Ona edo txarra izango den sekula ez dakigu...

—Oinarrikoa ondo pasatzea da, ezta?

—Hori da funtsezkoena, eta plater bakoitzaren gaineko komentarioak; koadrilaka aipatzen ditugu sari banaketan, batzuk apur bat izorratzera doaz... Baina helburua festa egitea da, jaiak bultzatzea eta ondo pasatzea. Koadrilan gehiago garen gu ere aurkeztuko gara agian, baina oraingoaz hiru bakarrik garen... ○

Eliza barria San Bartolomen 300 lagunentzako lekua edukiko duen eliza izango dute auzoko fededunek **bi urte barru**



Gaur egungo eliza eraitsi eta 50 metro atzerago eraikiko dute barria

Urte amaieran hasiko dira eraikitzen eliza barria San Bartolome auzoan, Udalak dagoeneko obra baimena emon diolako Bizkaiko Eliza katolikoari. Eraikin barriak egungo eliza ordezkatuko du, azken hori eraitsi egingo dute eta.

Aita oblatuek gidatzen zuten eliza orain dela urte batzuk arte; alde egin zutenean, Bizkaiko Elizbarrutiaren esku lotu zen eta ondoren, higiezinaren sustatzaile batek erosi zuen lursaila.

Orduan, Udalak 50 metrora dagoen orubea utzi zion Gotzaintzari 50 urterako, eraikin barriko lanak Gotzaintzak berak ordaintzeko baldintzagaz.

Obrak 700.000 euro kostatuko du, arkitektura-kabinetaren diseinu zerbi-

tzuz gainera. Halere, oraindik ez dituzte esleitu lanak.

Maila “handiko” eraikina izango da, itxura minimalista edukiko du eta hainbat egitasmoren artean aukeratu du Gotzaintzak. Arkitektoak hasierako egitasmoa moldatu behar izan zuen auzokideek eskatuta; ondorioz, egungo elizaren ataria eta gurutzeta mantenduko dituzte.

Era berean, auzoko eliztar-komunitatearen beharretara egokitu dute proiektua: oraingo elizak baino leku txikiagoa hartuko du, solairu bat gutxiago izango du, atariari leku txikiagoa eskainiko diote, eta elizari handiagoa, 300 lagunentzako lekua edukiko du. Inguruan berdeguneak atontzeko asmoa dauka Udalak. ○

JAIETAKO AZKENEKO TXANPA, BETI ONENA!

Sanjuanak pasata jaiak amaituta zeudela uste zenuten? Bada abuztuaren eta irailean matraka handia egongo da. Pinuetako jaiak hasiko dira abuztuagaz batera; goitibeherak prest izango dituzte honezkerok! Bi asteren buruan iritsiko da santimiamiarren txanda, abuztuaren 17an eta 18an; eta San Bartolomekoena abuztuaren 20tik 24ra izango da. Oraindik gehiago gura duzuela? Bada irailaren 10ean eta 11n ospatuko dituzte festak Udondo auzoan, eta biharamunean, domekan, Ondizko Bakailoa Txapelketa izango da. Egutegian atzenengoak izanagatik ez dira, ez, atzean lotzen auzootan!

IKEAKO IGOGAILUAK GABONETARAKO PREST

Bi igogailu ipiniko dituzte Ikea kalean, auzoko goiko eta beheko aldeak lotzeko; 20 metroko altuera gaindituko dute eta milioi erdi eurotik gora bideratuko du Udalak egitekootara. Ikea, San Juan, Iturribide eta Mendibile auzoak alkartzen diren gunean kokatuko ei dituzte. “Erantzunik onena” emon gura dio Udalak inguruko irisgarritasun arazoari. Eskailera mekanikoen aukera aztertu zuen, baita baztertu ere, “gurpil-aulkien eta ume-kotxeen beharretara egokitzen ez direlako”. Lanak laster hasi eta igogailuak Gabonetarako erabilgarri egongo ei dira.

KANTIKA KORALAK DISKOA KALERATU DU

Betibizi diskoa grabatu du Kantika koralak Hiri Records diskoetxeagaz, Xabier Amuriza bertsolariaren gidaritzapean eta Kepa Junkera trikitilariaren laguntzagaz. Dantzarako melodia klasikoak eta Bizkaiko kopia zaharrak bildu eta egokitu ditu Amurizak; aspaldiko 12 kanta dira, euskal kultura, abesbatzen mundua eta musika elektronikoa uztartzen dituztenak. Amurizak berak ere abestu du Kantikagaz, Junkerak ipini ditu trikitixa eta perkusio doinuak, eta Jose Luis Canal izan dute lagun pianoan.

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK

THE BEST
ONE BRAND ERROTULOAK

ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK eta
INPRESIO DIGITALAK
egiten ditugu

e-mail: hirutab@euskalnet.net

Iparragirre etorb. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tf. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



KUMEk dimentsio berdea inauguratu du:

Maskotentzako denda ekologikoa.

Hurbil zaitetz: KUME ERANDIO, Itsasadarreko Errepidean Erandio eta Astrabudua artean.

KUME BERDEA. DENDA EKOLOGIKOA!!

Rivera de Axpe 4 ERANDIO Tf. 944 91 30 55 www.kume.es

[erandio]

Astrabudua

- **Abuztuak 5, eguena:**
 - Koadrilen jaitsiera (19:00)
 - Pregoa eta txupina (20:15)
- **Abuztuak 6, barikua:**
 - Puzgarriak (11:00)
 - Kukaña (itsasadarrean; 12:00)
 - Karibear dantzen lehiaketa (21:30)
- **Abuztuak 7, zapatua:**
 - Idi-probak (17:30)
 - Kontzertuak (23:30)
- **Abuztuak 8, domeka:**
 - Sukalki kazolen entrega (13:30)
 - Hot dog koadrilen lehiaketa (21:00)
 - Txixarrilloa (dantzaldia; 22:30)
- **Abuztuak 9, astelehena:**
 - Tortilla txapelketa (11:00)
 - Herri sardina-jana (21:00)
 - Koadrilen *playback* proba (22:00)
 - Dantzaldia (00:30)
- **Abuztuak 10, martitzena:**
 - Trabudu dantzari taldea (19:30)
 - Umore ikuskizuna (22:00)

Altzaga

- **Abuztuak 25, eguaztena:**
 - Pregoa eta txupina (13:00)
 - Koadrilen jaitsiera (19:00)
- **Abuztuak 26, eguena:**
 - Puzgarriak (12:00)
 - Tortilla txapelketa (13:00)
 - Txan magoa (19:00)
 - Gala afaria (21:30)
- **Abuztuak 27, barikua:**
 - Herri-bazkaria (15:00)
 - Erromeria: Erdizka lauetan (19:00)
 - Kontzertuak: La Pegatina eta Tximeleta taldeak (00:00)
- **Abuztuak 28, zapatua:**
 - Gazte bazkaria (14:30)
 - Bertsolariak (20:00)
 - Kontzertua: Esne Beltza (00:00)
- **Abuztuak 29, domeka:**
 - Goitibehera jaitsiera (17:00)
 - Bilbainadak (21:00)

Abuztuan, jaiei gogor eutsi

Herriko festa nagusietarako prest? Bertan dira **sanlorentzoak eta sanagustinak**



Astrabuduko San Lorentzo jaiak abuztuaren 5etik 10era izango dira

Jaien maratokia ez da amaitu Erandion. Abuztua izango da hilerik mugituena, herriko bi festa nagusiak ospatuko dituzte eta: Astrabuduko San Lorentzo jaiak hilaren 5etik 10era izango dira eta Altzagako San Agustin jaiak hilaren 25etik 29ra. Bitartean, atsedean hartzeko parada izango da, beraz, lasai egon.

Sanlorentzoetan ez dira faltako ekimen gastronomikoak: marmitako, sukalki eta tortilla txapelketak, sardina-jana eta nagusientzako mokadu-eskaintza. *Txixarrilloa* ere antolatu dute, baina jatekoagaz zerikusi gitxi dauka;

adin guztietarako dantzaldia da-eta. Gerra mugitzeko karibear dantzak zein kontzertuak ere izango dira. Eta kirolari ezin ihes egin: kukaña, arrantza txapelketa eta idi-probak horretarako aukera.

Sanagustinetan ere nabari da jatekoa festaren parte garrantzitsua dela, izan ere, prest daude gala afaria, herri-bazkaria, gazte-bazkaria, beteranoen afaria eta txapelketa gastronomikoak, berbarako: tortilla, makailo eta *putxerenak*. Musiak ere tarte handia hartuko du, Altzagan joko dute La Pegatina, Esne Beltza edota Tximeleta taldeek. ○

Erandio Musikalean

girorik ez da faltako; **abuztuaren 7rako** iragarri dute, **Astrabuduko jaien barruan**



Zortzigarrenez antolatu du Musikalean Trabudu Dantari Taldeak

Fanfarrea, txistulari, albokari, trikitilari, gaita-jotzaile eta abarrek Astrabuduko kaleak hartuko dituzte abuztuaren 7an, Erandio Musikalean ekitaldia egun horretarako iragarri dutelako. Auzoko jaiak direla eta, Trabudu Dantari Taldeak zortzigarrenez antolatuko du ikuskizuna.

Musika eta euskal folklorea kalera ateratu gura du Trabuduk, auzoan giroa sortzeko. Herritarrak musikan murgildu eta tresnaren bat jotzera animatzea gura dute eta ezer jotzen ez dakitena ere ikastera bultzatzea dute helburu. Horretarako, goizean, txalaparta eta perkusio lantegiak antolatuko dituzte, umeentzat zein helduentzat. Eta kalejiraren bat edo beste ere

ibiliko da kalean gora eta behera.

Ostera, arratsaldean izango da mugimendu gehien. Orduan urtengo dira txistulariak, fanfarreak, *batukada*, trikitilariak edota albokariak, buruhandiek, motxorroek eta joaldunek lagunduta. Gainera, Josu Muruetako taula ere bisitatu dute denek 20:00etatik eta 21:00ak biartean, Los 5 Bilbainos taldearen emanaldia hasi baino lehenago. Bien bitartean, umeentzako berbena egongo da eta triki-bertso-poteoa ere tabernaz taberna ibiliko da.

Horrenbestez, girorik ez da faltako jaietan; herritarrek oso gustuko dute ekimena, jaietako arrakastuena ei da. ○

GOI-ALDE DANTZA TALDEAK 45 URTE

Omenaldia egingo diote Goi-Alde Dantza Taldeari Erandioigoikoako *andramarietan*, abuztuaren 14an eta 15ean. Jota eta arinarin erakustaldia egingo dute taldearen omenez zapatuan, hilaren 14an. Ondoren, dantzaldia eskainiko du Luhartz musika taldeak. Eta biharamunean jarraituko du ekimenak, izan ere, idi-probak eta erromeria antolatu dituzte.

SANTIMAMI AUZOKO JAIK, HILAK 17 ETA 18

Hamaika auzo, hamaika festa Erandion. Alzaga eta Astrabuduko jaiak gainera, Santimami auzoan ere ospatuko dituzte jaiak abuztuaren 17an eta 18an. Lehenengo egunerako nagusientzako mokadua, umeentzako jarduerak, idi-probak eta txinberen txapelketa prestatu dituzte. Eguaztenean, hilaren 18an, barriz, herri-bazkaria egingo dute, Potxin eta Patxin pailazoan ikuskizuna izango da, baita txokolate jana eta dantzaldia ere, Auskalo taldeagaz.

ERANDIOKO BANDERA ABUZTUAREN 21EAN

Erandio XXIII. Bandera jokatu dute abuztuaren 21ean, zapatua. Kirol proba Kantauriko Arraun Elkarteak antolatu du, Lutxana Arraun Taldearen laguntzagaz eta Udalaren babesagaz. Alzagak ontziralakuan hasiko da, 12:00etan.

IKASTEKO ARETOA ZABALIK ASTRABUDUAN

Ekainean azterketak gainditu ez zituztenek uda baliatu beharko dute ikasteko eta Astrabuduan izango dute aukera lasai asko hori egiteko; Josu Murueta Kultur Etxean gunea atondu dutelako hainbat egunerako: abuztuaren 21ean, 22an, 27an eta 28an, eta irailearen 4an, 5ean, 11n eta 12an egongo da zabalik. Goiz zein arratsaldean joan ahalko da ikastera, 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 21:00etara.

Torre 2
48990 ALGORITA
64 491 12 71
iratielgorte@gmail.com

irati

OPARIK MODA GAZTEA

Jurikaldai

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZUJRMENDI Angeruaoren etorb. 4B
(sarrera, Jota Mendia) T: 490 01 87
48990 GETXO

Uuribefm 107.8

fm
Gazte irati

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?



Etxebizitarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak



Arazoei agur... Tf. 902 54 08 54

www.arlan.biz

ABUZTUAN ZINEA KALEAN, URGITXIETA PLAZAN

Uda sasoi ederra da gaualdiak kalean eta lagun artean igarotzeko. Umeek ere ez daukate ohera joateko presarik. Horregatik edo antolatu dute zinea kalean eurentzat. Uztailean hasi ziren filmak emoten eta, abuztuaren ere, ekimenagaz jarraituko dute. Larrabasterako Urgitxieta plazan ipiniko dute pantaila handia hiru zapatutan. Abuztuaren 7an *Vicki vikingoa* eskainiko dute, hilaren 14an *Lluvia de albondigas*, eta hilaren 28an *Percy Jackson y el ladrón del rayo*. Emanaldi guztiak 22:00etan hasiko dira. Plan polita izango da gauaren freskuran murgiltzeko, abuztuko egun beroetan...

UDAKO TXAPELKETA "BITXIAK" HONDARTZAN

Ekitaldi originalak antola daitezke sasoi honetan, are gehiago hondartza luzeak baliatuta. Sopelan badakite hori eta ekimen bitxi bi antolatu dute, bata abuzturako, bestea irailerako. Lehena abuztuaren 15ean izango da, Harea Gazteluen Txapelketa. Eskultura ederrak eraiki ohi dituzte, baina itsasaldiak gora egin aurretik hurbildu beharko duzue ikustera, olatuek eroan baino lehen. Irailean, ostera, gora begiratu beharko duzue dragoiak, ahateak eta forma guztietako kometak ikusteko, Aireko Inauteria hilaren 5erako, domeka, iragarri dute-eta. Opor sasoi, opor ekitaldiak.

GOGORATU! TAO IRAILEAN ERE ORDAINDUKO DA

Hondartzetan TAO ordaindu beharra dago ekainaren 15etik (10:00etatik 20:00etara eta asteko zazpi egunetan), baina orotarazi beharrekoa da irailaren 30era irauango duela. Arriatera hondartzaren ondoan, Atxabiribil hondartzaren alboan eta Atxabiribil etorbideko 60tik 71ra bitarteko aparkalekuan ordaindu behar da TAO; autoentzako 1.880 aparkalekutan, guztira.

Prezioak: www.sopelana.net

Ez da amaitu festa

Karmenak igarota, **Euskal Jaia** izango da hurrengo zita, **irailaren 11n eta 12an**



Euskal Jaiaren aurreko edizioko irudi bat

Udak badu oraindik zer esan. Abuztua amaitzean udaldia ere amaituko delako sentipena izango du askok... ezta gitxiago bere! Sopelan sasoi eta giroa egongo da irailaren 11n eta 12an, udaletxeko plazan eta inguruetan, egingo den Euskal Jaian, hain zuzen ere.

Zapatuan, irailak 11, Nekazal Azoka egingo dute eta produktuak zuzenean erosi ahalko zaizkie nekazariei. Alkarren aurka lehiatuko dira barazki, gazta, fruta eta lore txapelketetan. Gainera, goiz osoan zehar txalaparta erakuskaldia

prestaturiko dute eta jotzen ahalegintzeko aukera ere emongo dute. Arratsaldean, atsedeneren ostean, Kalejira Mitologikoa eskainiko du Mari Biraka taldeak, 21:00etatik aurrera.

Duda barik biharamunagaz batera iritsiko dira urduritasuna eta lehia, Sukalki txapelketagatik, bertan neurtuko dute sopoloztar sukaldariak euren abilezia. Kazolak gustuko ez dituztenek ere badute non gozatu, adib.: margo lehiaketan eta txistu kontzertuan goizean, Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoan ikuskizunean (18:00) etab. ○

Javier Perez > *La casa del perro* zentroko arduraduna

“Jendea animatzen da aberea Hotelean uzten, eurak oporretan joan ahal izateko”



Gatzarriñe bidean dago *La casa del perro*

Etxe-abereei ostatu emoten die Larrabasterako *La casa del perro* zentroak 1970etik. Inguruko zentro bakarra da eta hainbat herritako animaliak hartzen ditu. Opor sasoi honetan, jende askok uzten ditu abereak bertako hotelean.

—**Diziplina anitzeko zentroa daukazu, zer egiten duzue?**

—Oinarrian txakurrentzako eta katuentzako egoitza da gurea. Gainera, denda eta trebakuntza eskola daukagu, eta etxe-abereak jasotzeko zerbitzua eskaintzen diegu hainbat udali. Sopelatik lan egiten dugu baina zerbitzu kontratatzen duten herrietan ere mugitzen gara. Katuak eta txakurrak hemen zaintzen ditugu, baina gainontzeko animaliak, Base Gorriari eroaten dizkiogu.

—**Udan abere gehiago jasotzen duzue?**

—Urtean zehar gertatzen diren abandonatzeak alderatuz, ez da egia sasoi honetan gehiago direnik. Kontua da orain erditze garaia dela eta beste batzuetan

baino kume gehiago dagoela. Orain nahitaezkoa da txipa jartzea txakurrei, beraz, zailagoa da animalia abandonatzea. —**Hotela daukazu, gauza bitxia da.**

—Aldi baterako hotela daukagu; egun batzuetarako edo tarte baterako izan daiteke, edota egoitza iraunkorra; hori adibidez, txakurra etxean eduki ezin duten ehiztariek erabiltzen dute. Hilean kuota finkoa ordaintzen dute jabeek jagon dituzagun. Batzuk bisitan etortzen dira, besteak ez. Garai honetan jendea animatzen

«Sasoi honetan ez dute abandonatzen gainerakoan baino abere gehiago»

da aberea hemen uzten, oporretan joan ahal izateko, asteburuetan batez ere. Uztail-abuztuaren nahiko beteta dago.

—**Abandonatzeak ez gertatzeko lagun-garri da Hotela?**

—Ez; beste faktore batzuzengatik gertatu ohi direlako: ekonomikoak, familiarak, bizileku aldaketak etab. ○

DIDAK HAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide pinturak



Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barnikuntza

Gatzarriñe z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email: sopela@ikastola.net



EGUNKARIAK prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero, etxera eroango dizugu egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

UDALEKUETAN 284 UMEK PARTE HARTU DU

Berangoko Udalekuak ekimena burutu du Udalak uztailean eta herriko 284 umeek parte hartu du Kultur Etxeetan antolatutako ekitaldian, berbarako: Basando faunaren babeslekura, Mendikosolo Parkera, Santanderreko Forestal Park-era, Areetako dinosauroen erakusketara edo Bordelera egindako irteeretan, eta gazte euskaltegian, ludokluban zein *Uda gaztea* programan. Abuzturako indarrak gordeko ete zuten...

UDALAK GOBELA IBAIA BIDERATZEKO ESKATU DU

Berangon ere Gobela ibaia bideratzeko lanak egiteko eskatu dio Udalak URARI (Uraren Euskal Agentzia), "etorkizunean uholde arriskua saihesteko". Horrez gainera, ibaiertz guztiak garbitzeko ere eskatu dio. Plan hidrologikoak udalariak "pairatzen dituen arazoak kontuan hartzea" gura du Udalean ordezkariak daukaten alderdi politiko guztiak. Eskaera uztailean 16ko uholdeen ostean berretsi dute, izan ere, Sabino Arana zeharbideko oinezkoentzako pasabidearen alboan gainezka egin zuen Gobela ibaia, "bizitegi-guneetako lurra uez betez eta Sabino Arana etorbideko eta ondoko kaleetako etxebizitza, industria eta saltokiak mehatxatuz". Gainera, Bolue eta Itze errekek ere gainezka egin zuten, "Larrañazubi eta Ugao bideetan etxeak, dendak, garajeak eta landaketak urpetuz". Horregatik, erreken eta ibaiertzen segurtasuna handitzeari "lehentasuneko" deritzote.

Garaizar barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 597 • garaizar@bouskalm.net
Eskola kalea 1 • ALGORTA

Atsedeen barik

Aurrera doaz herriko jaiak, **Santo Domingo** festak **abuztuaren 4tik 8ra** ospatuko dira



Hilaren 8an egingo da *Bakalada* (pil-pil erako makailo txapelketa)

"**Santuka**" eta festak dabil Berango, atsedeen barik. Santa Anako jaiak amaitu barri dira, baina iritsi da Santo Domingo festen txanda; abuztuaren 4tik 8ra, eguaztenetik domekara, ospatuko dituzte berangoztarrek.

Goizetik hasiko dira ekitaldiak hilaren 4an, izan ere, nagusientzako hamaiketako prestatuko dute eta Simon Otxandategi Dantza Taldeak emanaldia eskainiko du. Baina arratsaldean izango dira ekitaldi nagusiak: umeentzako dantzaldia, idi-probak eta binakako pilota txapelketako finala. Horrez gainera, 20:00etan sagardo jaiak egingo dute, bertsoariak eta trikitilariak lagunduta, eta

erromeria eskainiko du Egan taldeak.

Eguenean ere ez da egongo atsedeen hartzeko tarterik. Umeentzako jolas parkea 12:00etan zabalduko dute eta egun osoan zehar iraungo du. Aizkolariak eta harrizatorzaileek 18:00etatik aurrera egingo dute erakustaldia, eta ostean dantza taldeak. Gaueko dantzaldia Arizgoiti taldeak girotuko du.

Barikuan umeek gozatuko dute gehien: pailazoak, bitsa-jaiak, txokolate jana eta dantzaldia Betizu eta Luhartzegaz. Baina itxaron une batez, domekan *Bakalada* (pil-pil erako makailo txapelketa) egingo dute-eta. Nork ertsiko dio eritmoari? ○

Agustin Egaña > Toponimia ikerketaren arduraduna

"Diotenez, Leioak baino baserri gehiago dauzka Urdulizek"



Agustin Egaña, erakusketako panel batez

Urduliztarrek herriko txokoen izen darenak ezagutzeko aukera izango dute laister. Agustin Egaña historialaria joan den urteko irailean hasi zen herriko toponimia ikerketzen, Udalaren, Euskaltzaindiaren eta Mankomunitatearen laguntzagaz. Bibliografia batzuez gainera, herritarrengana jo du informazio bila; eta laguntzeko prest dauden urduliztarrei deialdi zabala egin die. Orain arte batutakoaren parte bat Kultur Etxean dago.

—**Zer zabilta ikertzen?**

—Toponimia berez izenak dira, leku izenak, baserri izenak e.a. Ikerketa bi fasetan banatzen da. Lehenengoan bibliografia bilatu eta artxiboetara jo dut. Orain, bigarren fasean nago, herritarrei elkarriketak egiten.

—**Zelan joan da orain artekoa?**

—Pozik nago. Egia esan, ez nuen espero hainbeste datu bilduko nituenik. Sor-

presa positiboa izan da. Diotenez, Urdulizek Leioak baino baserri gehiago ditu; baserriek izena dute, baita soroek ere. Dokumentu eta artxiboetan informazio asko dago.

—**Zelako harrera egin dizute?**

—Aurreko ikerketa batean kontaktatutako lagunak zerrenda pasa zidaten eta

«Laguntzeko prest daudenek udaletxean galdetu dezakete»

horrekin ibili naiz orain arte. Argazkiak ateratzera joan naizenean, nahiko harrituta gelditu dira. Laguntzeko prest dagoen norbait badago, Udaletxean galdetu dezake niguatik, asko eskertuko dut.

—**Noizko ondorioak?**

—Ikerketa beka, urtebeterako da; baina, informazio asko dagoela ikusita, luzatu beharko dugu. Urrian izenak mapetan ipintzen ahaleginduko naiz. ○

tanta.
estetika



Basagoiti etorbidea 85 (Algorta)
Tf: 645 739 780
Zure beharrez araberako ordutegia

BASARTENT



URDULIZ

Teléfono: 946 761 128

OSABIDE HORITZ KLINIKA

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Odontozia
- Periodontia
- PADI



Bidebiri 27, behe eskana
ALGORTA
94 430 76 96



Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15

AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
DERRIGORREZKO BIGARRREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTERO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / Tf. 94 491 17 86

GORLIZKO ANDRA MARI JAIK HILAREN 5ETIK 8RA

Gorlizko Andra Mari Elizaren inguruetan Andra Mari Jaiak ospatuko dituzte abuztuaren 5etik 8ra. Jaietako ekitaldi nagusia den Paella Txapelketa azken egunean egingo da; aurten 50 urte beteko ditu lehiaketa gastronomikoak eta ospatzeko asmoz 500 pertsonentzako paella erraldoia egingo dute landetan. Hori amaitutakoan, Continente Formula 60 taldeak 60. hamarkadako dantzaldia egiteko doinuak eskainiko ditu.

MARTXAN DA MARMOKAK ATZEMATEKO KANPAINA

Uribe Kostako Mankomunitateak marmokak atzemateko kanpaina martxan ipini du, Ingurumenaren eta Landa eta Itsas Ingurumenaren Ministerioaren Itsasertz eta Itsasoaren Iraunkortasun Zuzendaritza Nagusiaren laguntzaz. Itsasoan denbora asko emoten duen jendeari zuzenduta dago; horiek mceballo@tragsa.es helbidean izena emon eta gure kostaldean ikusi dituzten marmoken baari emoteko aukera daukate.

NOTA ONENAK DITUZTEN PLENTZIARRENTZAT

Plentziako Udalak 1.000 euroko dirulaguntza emongo die Plentzian erroldaturiko bi ikasle onenei. Beka jaso ahal izateko interesdunak hiru urtez Plentzian erroldatua egon behar du eta batxiler edo Lanbide Heziketatik Unibertsitatera joan gura behar du. Aurkezteko epea abuztuaren 1etik irailaren 30a arte egongo da zabalik, Udaletxean.

URIBE KOSTA

Andramarien eta sanantolinen txanda oraingoan!



Plentziako San Antolin Jaiak abuztuaren 30etik irailaren 5era izango dira

Santiagoak eta Karmenak atzean utzi, eta oraingoan Plentziako eta Urdulizko jai nagusien txanda da.

Antolintxuk eta Madalontxuk abuztuaren 30ean botako dute Plentziako San Antolinen txupina eta irailaren 5a arte ez dira etxera bueltatuko. Lehenengo egunean, Gau Zuria egingo dute eta, urtero legez, mozorro lehiaketan parte hartu ahal izango da. Martitzenean, Euskal Jantzien eta Play Back lehiaketak egingo dituzte; eta irailaren 2a, San Antolin eguna, kok-

telen txanda izango da. Asteburuan El Menton de Fogarty eta Luhartz taldeen doinueta dantzeko aukera egongo da.

Urdulizen irailaren 3tik 12ra ospatu-ko dituzte *andramariak*. Antsonekoa Kirok Taldeak joko du pregoia; eta herriko musika taldeak zein kanpokoak entzun ahal izango dira gauero. Irailaren 4a umeen eguna izango da; eta hilaren 5eko arratsalderako goitibehera lehiaketa antolatu dute. Kick Boxing, Skate eta frontenis txapelketak ere prestatu dituzte. ○

Uzt. 29 - Ira. 20

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

JAIK

LEIOA

- ▶ **Pinueta auzoa.** Abuztuaren 1ean.
- ▶ **Santimami auzoa.** Abuztuaren 17an eta 18an.
- ▶ **Udondo auzoa.** Irailak 10 eta 11.

BERANGO

- ▶ **Santo Domingo.** Abuztuaren 4tik 6ra.

ERANDIO

- ▶ **San Lorentzo Astrabuduan.** Abuztuaren 5etik 10era.
- ▶ **Andra Mari Erandiogoikoan.** Abuztuaren 14an eta 15ean.
- ▶ **Santimami auzoa.** Abuztuaren 17an eta 18an.
- ▶ **San Agustin Altzagan.** Abuztuaren 25etik 29ra.

GORLIZ

- ▶ **Andra Mari.** Abuztuaren 5etik 8ra.

PLENTZIA

- ▶ **San Inazio.** Uztailaren 31n.

PLENTZIA

- ▶ **Antolintxu.** Abuztuaren 21ean.
- ▶ **San Antolin.** Abuztuak 30etik irailaren 5era.

GETXO

- ▶ **Erromo.** Abuztuaren 2tik 8ra.
- ▶ **Portu Zaharra.** Abuztuak 12- 15.

Els Cremats taldea

▶ **Musika**
Getxoko Habanera eta Itsas Abesti jaialdia
Dagoeneko irailaren ere pentsatzen gabilza UKko agendan eta ekitaldi polita topatu dugu ikasturtea lasaitasunez hasteko: Getxoko Habanera eta Itsas Abesti jaialdia. Ospe handiko jaialdia da eta 24. edizioa izango da aurtengoa. Irailaren 17tik 19ra izango da Areetako Geltokia Plazan ipiniko duten karpan, ohi legez. Bertoko talde batek emongo dio hasiera jaialdiari, Gorlizko Lirain abesbatzak, hain zuzen ere. Barikuan kantatuko dute, irailaren 17an. Biharamunean, barriz, gaztelarren txanda izango da, Aguadulce taldearena. Eta jaialdia ixteko Catalunyaetik etorriko dira Els Cremats-ekoak. Saio danak 20:00etan hasiko dira eta sarrera dohainik izango da.

• **Non:** Areetako Geltokia plazan • **Noiz:** Irailaren 17tik 19ra

MUSIKA

GORLIZ

- ▶ **Txileko eta Euskal Herriko poesia errezitaldia.** Erakustaretoan. Uztailaren 29an, 20:00etan.
- ▶ **Kantaldi lirikoak.** Elizan. Uztailaren 31n, 20:00etan.
- ▶ **Mikel Andueza Quartet.** Elizan. Abuztuaren 13an, 20:30ean.
- ▶ **Enpordako Ganbera-Orkestra.** Elizan. Abuztuaren 20an, 20:30ean.

GETXO

- ▶ **Biotz Alai abesbatza.** Algortako Biotz Alai plazan. Abuztuaren 10ean, 21:00etan. Doan.
- ▶ **Atadx a la nada + S.A.** Erromoko Santa Eugenia plazan. Abuztuaren 5ean, 23:00etan.
- ▶ **Esne Beltza.** Portu Zaharrean. Abuztuaren 13an, 22:30ean.

PLENTZIA

- ▶ **Folk musika.** Elizan. Abuztuaren 13an, 20:00etan.

ANTZERKIA

ERANDIO

- ▶ **Txan magoa.** Altzaga auzoan. Abuztuaren 26an, 19:00etan.

GETXO

- ▶ **Euskal mitologia.** Erromoko Santa Eugenia plazan. Abuztuak 8, (23:59).

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA

KLIMATIZAZIOA
HOZTEKO, GIROTZEKO edota BEROTZEKO INSTALAZIOAK
(ingeniaritza / instalazioa / artapena)
ENERGIA INGENIARITZA
ENERGIA AUDITORIAK
GEOTERMIA

BERANGO (BIZKAIA) vasa@vasa.biz 94 668 1551 www.vasa.biz

SATISTEGI
CAFÉ

ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



Festarik festa...

"... lan egin behar gauero... Festarik festa, hor nabil ni egunero..."
Horrela dio kantak eta Euskal Herrian ohitura baino betebeharra dugula emoten du; hori bai, gustura egin ohi dugun lana! Irudiok dira horren erakusle. Orain arte ospatutako Uribe Kostako jaietan egin ditu UKko argazkilariak. Baina, lasai egon, abuztu osoa dugu aurretik, eta festatan lan gogorra egiteko nahikoa asti izango da...

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Erandion

bigantxak zezen plazan

Ohitura sendoa izan da herrietako festetan bigantxak ateratzea, sokamuturra antolatzea. Klean egiten zuten askok, eta Erandioko Altzaga auzoan zezen plaza ipintzen zuten orain dela zenbait hamarkada. Azken urteotan, oster, galduz doa ohitura gure inguruan, baina zuotako askok izango dituzue bigantxen arrastoak kopetan edo buruan, hainbat puntu jaso ditu batek baino gehiagok bigantxek eragindako zauriengatik. Halere, gustura ibiltzen zen jendea, giro aparta sortzen zuen usadioak orain dela ez askora arte.

[berbetan]

Mundialean ipini genuen Txapelketa Nagusiko irabazleagaz hitzordua, baina, taldeagaz batera kotxez etorri zen Maialen Lujanbio (Hernani, 1979) Algortara uztailaren 14an, eta patxadaz berba egin asmoz, telefonoz egin genuen alkarrizta hurrengo egunean. Bilbon egin zituen ikasketak, Arte Ederretako lizentziaduna da, euskal prentsan iritzi-emaile lanak egin ditu, zenbait musika talderentzako letrak idatzi eta kartelgintzan ere jardun du. Baina, ikastola garaitik bizi, bertsoa bizi du. Lehenengo txapela Gipuzkoako Eskolartekoan (1991) jantzi zuen, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketakoa 2003an, eta iazko abenduaren 13koa izan zen mundialetan mundialena.

Maialen Lujanbio sortzen jarrai dezagun...

Testua: **I. Sagarmínaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Txapela bururatu zenuenetik urte erdia baino gehiago pasa den honetan, Txapelduna izateak eragindako hedabideen gose eta arreata atzean utzita, patxadaz atzera begira dezakezu orain; zelan ikusten duzu gaur egun orduko guztia? —Denborarekin hobeto dastatzeko modua izaten da. Abendu ostekoa pixka bat burrunba izan zen, medio asko, eta zorion asko, jende asko, eta emozio asko... Momentuan igual ez zara hainbeste jabetzen, eta gero, denborarekin, nolabait digestio modukoa egiten da eta perspektiba pixka batekin ikusi, pixka bat kanpotik bezala begiratzen duzu; eta batzuetan iruditzen zaizu zu ez zinela hor egon, kanpotik ikusi zenuela. Baina, oso oroitzapen ona dut; betetasun bareagoa, beteagoa. —Ez dakit zenbat alkarrizketa, zenbat galderari erantzun beharra... Zer edo zer lotu zitzaizun esan barik? Beste modu batera erantzun gura izateko gogoak... —Ez dut uste; aukera eduki nuen bertso-gintzaz eta bertsolaritzaren testuinguruaz aritzeko, herri honen egoera kulturalaz, linguistikoaz e.a. Pixka bat esparru ho-


rretan ibiltzen edo mugatzen gara gu eta, esan beharrekoak, nik uste, esan nituela. —Sasoi hartan hiru gaik jaso zuten arreata berezia: belaunaldien arteko lekuko aldaketak, Txapelduna lehenengoz emakumezkoa izateak eta zeure estilo, bertsojera propioak. Horiei emondako garrantziaz-edo zer daukazu esateko? —Iruditzen zait iazko Txapelketa sinbolikoki oso indartsua izan zela, eta irudi oso-oso sinboliko batzuk eman zituela; beharbada plazan jada gertatuko gauzak

“Denborarekin hobeto dastatzeko modua izaten da... batzuetan iruditzen zaizu zu ez zinela hor egon”

esplizitatu balira bezala, edo irudikatu, BECeko oholtzan. Adibidez, belaunaldien arteko errelebo emate hori, nik uste, plazatan jada gertatu zela; baina, oso modu... argazki modura ikusi zen BECen: Andoni Egaña Txapeldun izatetik ni Txapeldun izatera, eta ni pixka bat nire belaunaldiaren ordezkari bezala. Bestalde, lehenengo emakumea izateari dago-

kionez, uste dut inportantea dela datu, ez dakit, historiko-edo bezala; nik pertsonalki, ez nuen hainbeste horrela bizi izan, bertsolari bezala baizik. Baina, kontziente naiz inportantea dela, mugarritxoa, emakume batek lehenengo aldiz Txapela irabaztea. Eta inportantea izan litekeela, batez ere, datozen belaunaldiek hori modu normalean eta naturalean bizitzeko, eta erreferentzia izateko emakume bertsolari bat ere posible dela. Gero, nire estiloari dagokionez, pixka bat kanpotik egindako

irakurketa da; niretzako pozgarria, azken batean, zu egiten ari zaren ezkutuko ahalegina kanpotik ere errekonozitzen delako. Egia da, txapelketak izaten direla nolabait salto kualitatiboa, pixka bat makinaria estutzeko motiboak, txapelketa-garaian “pultzatzen” dugula gure estiloa eta hori guztia. Kanpotik hori ikusten baldin bada... pozgarria izan zen niretzat.



—Asko berba egin da zure estilo propioaz, estilo narratibo-deskriptibo legez aurkeztu dute; zeuk zelan azalduko zenuke?

—Narratiboa, deskriptiboa, bai; pixka bat neurri luzetarako joera daukagu, neurri horiek bete ere egin behar dira! Eta horiek betetzeko teknika da narrazioa edo deskripzioa. Baina, batez ere, eta nik aurten horretan enfasia jarri nahi nuen, kontaketa hutsa ez dadila izan; niretzat kontaketa-ekin ez zen aski, iritzi mailan, ikuspuntu mailan zer edo zer esan nahi nuen gaiet buruz. Gero, teknika, dena delakoa; teknikan adjektiboak, deskripzioa edo dena delakoa; baina, batez ere, bertsokera izan dadila inplikatu, gaiarekiko iritzia emanez, eta ikuspuntu batez; ez narrazio hutsa.

—Askok emon dute iritzia, birena aipatzearen, Uxue Alberdiren: “...azalez azal mamiraino sartuko balitz bezala (...) berriro banan-banan mamitik azalera jantziz...”, eta Markos Zapianena: “*ten-tuz lantzen du kristalezko bertsoa, bertso alambikatua, joskera ekilibrista, zilargina. Bertsoa irun egiten du, josi, brodatu, astiro, goxo, sintaxia aldi berean behartuz eta mimatuz*”. Ondo deritzezu?

—Joe! Gustagarria entzutea. Uste dut bertsolari guztien, bertsolarien ahalegina dela azkenean egiten ari garen entrenamendu edo intentzio horretatik ahalik eta hurbilen ibiltzea gure bertsokera. Nire kasuan, intentzio hori ahalik eta ahots nireena eta ikuspuntu nireena ematea zen; gaiak ez tratatzea kanpoko zerbait bezala, fikziozko bezala, horrelako fikziozko hipotesi bezala, baizik eta pixka bat neure burua kokatzea gai horren barruan, edo gai horiek nire bizitzaren barruan. Horrek eragiten du, bada bai, gero eta barruagotik hitz egitea. Horrekin lotzen dut Uxuek esaten duena. Gero, beste zita... Bada, estiloa ere landu egin behar da, ez da aski edukia, azkenean, forma ere edukiaren parte da. Bertsolariari, dudarik gabe, badagokio errimak, eta sintaxia, eta hitzak; hitzen egokitasuna, eta esateko moduen edertasuna edo efikazia lantzea. Hori dena aparte da.

—Aipatu dituzu emakumezko belaunaldi barriak, zelan ikusten dituzu plazan?

—Uste dut momentu oso interesantea dela bertsogintzan, mugarrira; orain arte gainditu gabekoa, gainditu egin dela: emakume kopuru dexentea ibiltzea plazan, eta 16-17 urteen barrera kritikoki hori pasa izana hainbeste neskak edo emakumek. Eta interesantea da ere bai emakume perfil oso

“Uste dut banentorrela bertsokera soilago eta funtsezkoa eginez, iritziari eta ikuspuntuari garrantzia emanez...”

diferenteak plazaratzen ari direlako; orain arte ez zegoen aski kopururik perfil diferenterik egoteko, eta gaur egun bai, emakume mota oso diferenteak daude, bakoitzak ekarriko du bere ideologia, bere gauzekiko ikuspuntua... Benetan, aniztasun hori izango da beste mugarrirako bat, beste oinarri bat hortik aurrera beste pauso batzuk emateko. Uste dut momentu interesantea dela eta, alde horretatik, oso denbora laburrean bide handia egin dela.

—Emondako hitzaldiren baten, prentsak jasotakoa, zeure bertsolari ibilbidean lau aro bereizten zenituela esan zenuen. Hemendik aurrerakoa bosgarrena?

—Ez dakit... Begira, harroa ere badirudi zure traiektoria zatitzeak, lau aro... Picasso bezala! Egia esan, orain perspektibarekin eta atzera begira, irakurketa hori egin lite-

“Estiloa ere landu egin behar da, ez da aski edukia, azkenean, forma ere edukiaren parte da”

ke eta teorizatu liteke; baina, momentuan ez zara kontziente, ez zara maniobra horien hain kontziente, nahiz eta beti egon intentzioa, edo ezinegona, bide bat ala beste hartzera zaramatzana. Beti ez da argi ikusten, eta aldaketak ere ez dira erradikalak izaten. Nik uste, azken Txapelketarako eta pixka bat azken urtetan, banentorrela,

lehen aipatu dugu, bertsokera soilago eta funtsezkoagoa eginez, iritziari eta ikuspuntuari garrantzia emanez eta hola... Uste dut hor segitzen dudala eta segituko, hor ere deseroso sentitzen naizen arte.

—Amurizak aurkeztu barri duen liburuaren inguruan akordura ekartzen zuen: garai batean ezinezkotzat jotzen zirela bertsotan ikas daitekeela, Txapeliduna an-

drazkoa izatea, edo “euskaldunbarri” baten bertsokera txapelketak irabaztea; eta horiek guztiak egin egin direla. Garai baten bertsolaritzak euskararen eta Euskal Herriko mugak gaindituko zituenik ere hainbatek ez zuen esperoko; baina, esan liteke globalizazioa (uztartearen bidetik) ere ezagutzen duela. Zeu ere atzerrian bertsotan ibilitakoa zara.

—Bai, sare moduko bat sortzen ari da; nik uste, munduko beste herrialdeetako inprobizazioak ere, leku askotan behintzat, momentu nolabait emergente batean daudela, eta badaukagula harremana eurekin, batzuekin, eta elkar ezagutze horrek indarra eman digula denoi. Badaude kultura globalaren azpian edo paralelo bestelako sare batzuk ere, ez hizkuntza handietan, jardun masiboetan bakarrik gertatzen direnak,

ez dela muga, eta alde batetik, egia da; baina, bestetik, erabateko muga ere bada, guk juxtu edukiarekin lan egiten dugulako eta edukia delako gure helburu nagusia. Edukiak ulertzen ez diren testuinguruan, benetan, arraro sentitzen gara. Baina, badago ulermenerako beste modu bat ere, testuala ez dena, eta hor gertatzen da horrelako elkar trukea, tradizioen trukea,

“(Erronkak:) Batetik, lanean segi transmisioan eta ezagutarazten; bestetik, esploratzen jarraitzea”

gaur egungo egoera eta kezkei buruzko informazio trukea; elkarlana. Gure kasuan, nik zer dakit, Menorcatik etorri diren glosadoreak entzutea kristoren plazera izan da, nahiz eta ez guztiz ulertu; baina, bada horrelako sentimendu komuna, ulermen moduko bat ere. Interesantea da ekar dezakeena eta bertsolaritzari eman diezaiokkeen dimentsioa. Nik uste gure helburua ez dela mundura zabaltzea, esan nahi dut, geure burua promozionatzea munduan, baina, bai, mundu mailan horrelako oinarritzko sarea egitea, pixka bat inprobizazioaren erro horri indarra emateko.

—Mexiko, Argentina eta abarren egon

zara. Ibilaldirako pasadizo berezirik?

—Mexikon ez, San Frantziskon egon naiz orain dela gutxi, Argentinan ere bai. Egoera pixka bat arraroak izaten dira. Baina, berezia da jendeak sentimenduz nola konektatzen duen; bertsolaritzaren performance-eko isiltasunak zer pisu hartzen duen, eta *a capella* kantatzeak zer indar hartzen duen, jendea nola hunkitzen den

eta abar; nahiz eta edukiak ez jaso.

—Amuriza aipatuta, akordura dator bertso gintzako beste eztabaidetako bat: erdarakaden auzia, hitz barriak sortzea e.a.

—Bertsogintza gaur egungo garaian bizi den jarduna da, eta kalean gertatzen dena pasatzen da bertsotan ere. Nik uste suertea daukagula, euskarak oraindik esploratzeko eremu dexente eskaintzen dituelako. Zailtasuna bada, baina suertea ere, oraindik asmatzeko dauden kontzeptuak, asma litezkeen hitzak eta... Oso hizkuntza bizia da eta hazten ari dena. Ez naiz oso purista, zentzu horretan. Gero eta gehiago erabiltzen ditugu; noski, bakoitzaren intuizioa-

ren arabera neurtu behar dugu zenbateraino bai, zenbateraino ez. Ni ez naiz bereziki purista, ezta erabat zabartzearen aldekoa ere; bakoitzak jarriko dio horri neurria.

—Amaitzeko, zeintzuk dira euskal bertsolaritzaren erronkak?

—Alde batetik, txapelketa garaitan indar handia daukala irudikatzen da, egia da; baina, kontziente izan behar dugu herrialde eta herri ezberdinetan egoera oso ezberdina dela, adib.: Araba, Iparralde edo Nafarroa gehienez egoera ez da batere ona. Hor lanean segi behar dugu transmisioan, bertsolaritza ezagutarazten eta. Beti egoera linguistikoarekin lotuta dagoen zera da. Nik uste gure lana hori ere badela, bertsolariaren transmisioan eta zabalkundean pixka bat segitzea, eta oinarriak sendotzea. Beti euskararekin eta euskal kulturarekin bat etorriko den borroka izango da. Bestetik, bertsogintzari berari dagokionez, uste dut osasuntsu dagoela, jendea esperimintatzeko gogoz dagoela, gauza berrietara hurbiltzen ari gara, konbinazio berriak e.a. Horrek ematen ditu bere emaitzak, batzutan balio dute, bestetan ez. Baina, esplorazio hori da inportantea; uste dut, alde horretatik, jende talde interesantea dagoela, eta ardura badagoela; azkenean, horrek mugitzen du errota. ◻

Jakin beharra eta konpromisoa; bertsolarien ezaugarri?

—Algortako Jaialdi Mundialean “Oro Sapiens” bertsolaria izatea egokitu zitzaizun. Bertsolariak denetarik jakin behar du, guztiz informatuta egon, ala bestela ez dakizkien kontuetatik urte jakin. Hori zelan erosten duzue?

—Batzutan, nik uste, abusatu egiten dela pixka bat; jartzen zaigula, ez erantzuteko gai ez garen gai bat, baina... Jarri liteke kasu bat, benetan, zuk informazioa badaukazuna, baina jendeak daukana, prentsatik edo; edo ez duzuna gehiegi pentsatu. Bertsolariak estrategiak dauka hortik modu efektibo batean ateratzeko. Baina, egia da, lanbide edo jardun

honek eskatzen duela preparazioa eta gaiekiko norbere lekua pentsatuta izatea. Ez da gauza obsesiboa, nik behintzat egunkariak leitzen ditut eta, gainera, plazerez, gustatzen zait; pixka bat gai potoloenen haria segitzea da eta lehen esan bezala, gai horiek pixka bat mamitzea, ez bakarrik informazio uholde hori barruan edukitzea, baizik pixka bat lantzea, ikuspuntu kritikoki batekin begiratzea, pentsatzea bakoitza non kokatzen den.

—Bai gizarte arazoak zein politikoki konprometituak zaretela emoten du; entzuleen perfilaren eraginez ala...

—Konpromisoa gauza oso zabala izan

liteke. Egia da, batetik, argudioekin egiten dugu lan, orduan, gure iritzia plazan garbi geratzen da normalean, argumentazioa delako gure lan tresna nagusia; bestetik, euskarazko jarduna, kultur jarduna da gure egitekoa, orduan, ezinbestean, oso kontziente gara inguratzen gaituen egoeraz, eta herri honen egoera sozio-politikoaz eta sozio-linguistikoaz; nolabait, horri dagokionez, egin beharra sentitzen dugu, nik uste. Iritzi politikokoak denetariok dira; baina, ni uste, badaukagula kontzientzia soziala, edo kultur-gintzari edo euskalgintzari lotua: gure lana testuinguru horretan kokatzen dugula.



Naturaren opariak

Argazkilaritzara heldu barria da Mikel Cantalapiedra (Portugaleta, 1972). Orain hiru urte hartu zuen kamera eskuan, ikusitakoak eta sentitutakoak kontatzeko asmoz. Berben bidez deskribatu ezin duena plazaratzeko tresna ezin hobea da argazkigintza Cantalapiedrarentzat. Gainera, Naturak eskaintzen dituen momentu liluragarrienakaz gozatzeko aukera emon diola dio: egunsenti ederrak, neguko paisaia zuriak... Pribilegiatua sentitzen da horien lekuko izateagatik. *Lumine motus* elkarteko kidea da, Uribe Kostako beste zenbait argazkilarigaz batera.

Argazkiak: **Mikel Cantalapiedra**











BETIKO

IKASTOLA

**GURE GAURKO
ETA BETIKO
IKASTOLA**

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DIIIn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Leioako Ikastolen Elkartearen ikastola bakarra.



Ikastolen Elkartea

Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO!



**GIZONENTZAKO
MODA**

Telleixe 5
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Erromoko laburren unea

Zinegile hasibarrien zortzi film labur emongo dituzte **abuztuaren 5ean**



El pez plomo filmeko irudia

Jaietan denetarik aurki daitekeela kontu jakina da, baina askotan jaiak antolatzen dabilzanek entzun behar izaten dute nasaikerian daudenetatik "jaietan, beti, betikoa dago; ez dago ezer" esaldi kantsagarri hori. Horrez gainera, jaiak ume-gazteei edota musika emanaldiei begira bakarrik antolatzen direla ere sarri entzuten da. Ostera, gehienetan egitarauak parez pare irakurritz, kolore eta mota askotako ekimenak egoten direla konturatzea ez da batere gaitza. Horren adibideak andana; berbarako:

Erromoko jaien egitarauak txokotxo egingo dio aurten ere zineari. Izan ere, Erromoko Jai Batzordearen laguntzagaz, Memento Laburra ("Un momento corto") film laburrei eta ikus-entzunezkoei begirako ekimena antolatu dute barrero ere erromoztarrek; eta ekitaldia antolatzen duten hirugarren aldia da aurtengoa.

Oraintsu aipatu legez, ekitaldia Erromoko jaien barruan prestatzen

dute eta abuztuaren 5ean, eguena, gaueko 10:00etan ipini dute hitzordua, Santa Eugenia 23 inguruan.

Iragarri dutenez, zortzi film labur eskainiko dituzte oraingoan, zinegin-tzan hasibariak direnek eginak, hau da, zinegile amateurrenak. Hala, hurrengo zinegileen ondorengo film laburrak edo ikus-entzunezkoak ikusi ahal-

**«Santa Eugenia 23
inguruan egingo da
"Memento Laburra"
ekitaldia»**

ko dituzte bertaratzen direnek: *Averno Sell* (Edizioa: Arantza Rojo eta Adrian Riera), *Puñalada Trapera; prisionero de tus miedos* (DVD-bideoklipak), *Comision* (Zuz.: Jorge Jarel), *Zatarrak* (Zuz.: Asier Abio), *Nuevas generaciones* (Edizioa: Marta Fernandez), *El pez plomo* (Zuz.: Paul Urkijo), *Cuchillo, Mc Gregor y El vasco* (Zuz.: David Zabala eta Paul Urkijo) eta *Amada Mantis* (Zuz.: Urtzi Perez). ○

GuAiToRoCk irailean

Gazte eta anitza izan asmo duen jaialdiak **prest dauka** behin-behineko **egitaraua**



Irudian ERTZ talde gazte-gaztea. Informazio gehiago: www.guaitorock.com

Bila ibili eta alkarregaz topo; hala jaio ei da Getxoko Guaitorock jaialdia; helburu eta asmo berdintsuak Udalak antolatutako *Wanted* lehiaketara aurkeztu ziren hiru talderen alkarlanaren ondorioz (ikus. UK 178.eko 14. orrialdeko alkarrizketa). Musika Jaialdia iraileko hirugarren aste akabuan egingo da, antolatzaileen esanetan "asmoa Portu Zaharrean egitea da, baina ezin baiezatu"; halere behin-behineko egitaraua prest dute. Irailaren 17an (18:00), barikua, hurrengo taldeen kontzertuak egongo dira: Getxoko ERTZ, Gernikako Bertan Bera, Zumaiako Itaka, Getxoko

Napalm, Bilboko Dabelyu, Etxebarriko Niketz, Durangoko Alerta eta Bermeoko OST. Zapatuan jardungo dutenak hauek: Getxoko Autosecuestro, Bilboko Hotsak, El Paso Killers eta Amargor, Getxoko D.A.R., Soriako Alimaña HxC, Barakaldoko Distorsion, Getxoko Thunda Clap Sound System eta amaitzeko Erresuma Batuko Prince Livijah eta Chieftain Joseph. Azken egunean Bilboko Happy Morgue taldeak kontzertu akustikoa eskainiko du, perkusio lantegiak egongo dira eta barrero bere Thunda Clap Sound System taldearen reggae doinuek itxiko dute jaialdia. ○

jaialdia > Ska-Reggae

Ohi legez, Erromoko jaien egitarauak leku berezia gordeko dio beste behin ska-reggae musikari. Beti legez jaietako zapatuan, aurten abuztuaren 7an, egingo da Erromoko Nazioarteko Ska-Reggae jaialdia, gaueko 09:00etatik aurrera Santa Eugenia plazan. Erromoko Jai Batzordeak, Brixton Records denda eta zigularen laguntzagaz, antolatzen duen jaialdiak XIII. ekitaldia izango du 2010ekoa, eta iragarri dutenez hurrengo taldeek eskainiko dituzte kontzertuak: The Slackers, The Aggrolites, The Penguins, Thunda Clap Sound System eta Luz de Putas-ek. Urtero bezala eurekatz gozatu ahal izateko ez da sarrerarik ordaindu behar.

diskoa > Hesian

Orain dela lau urte Sakana aldean (Nafarroa) sortutako taldeak hirugarren diskoa plazaratu du. *Maite dugu* (2007) eta *Herriaren oihua* (Gor, 2008) lanen ostean, taldekideen sartu-iritenak gairitu eta Hesian-ek *Borrokatu eta Irabazi* izeneko azkeneko lana 11 kantez osatu du. 2010eko maiatza eta ekaina bitartean Haritz Harreguyren laguntzagaz grabatu eta nahastu dute diskoa Usurbilgo Higain estudioan. Horrez gainera, taldeak berak autoekoiztu eta autoeditatu du *Creative Commons* lizentziapean. Hirugarren lan honek ere amorraren eta itxaropenaren bideetatik bidaiatzera gonbidatzen gaitu, aldarrikapenen eta salaketen ibilbideetatik.

Informazi gehiago: hesian.weebly.com

diskoak

Never Mind People
Never Mind People
Errabal jazz



Nirvana taldearen 90. hamarkadako *Nevermind* diskoa du oinarri lan honek. Jazzera ekarri dituzte diskoko bost abesti Ainara Ortega, Jorge Abadias, Aritz Luzuriaga eta Hasier Oleagak; beraien kantuakaz nahastu dituzte, jazzaren eta musika garaikidearen espaziora daramatzaten aldaera pertsonalak eskainiz.

The Trial
Electric Riders
GOR



The Trial laugarren diskoa dute Electric Riders taldekoeek. Jose Lopezek eta beraiek ekoiztu dute. Psikodelia doinuak lantzen dituzte eta adierazi dutenez, azkeneko album hori "kontzeptuala da, ohiko zirkuitutik kanpo eta ausarta apustu musikalean". Orokorrean, 70eko urteetako musikaren gaurkotasuna aditzera emoten du.

Hipote.K.O.
HipoteKAOS
Sorginkale Banaketak



Hardcore eta punk bizia egiten du Iruñeko HipoteKAOS taldeak, hauxe da azken lana: *Hipote.K.O.* Punk amorratua da, baina melodiak eta ironiak lagunduta. HipoteKAOS taldeko lagunak 90eko urteetan hasi ziren, orduan Escrupulo ziren. Hainbat urteren bueltan batu ziren ostabere, 2007an, "gerra ematen jarraitzeko".

etorri
eta
ikusii!

ORIXA

liburudenda

Alargente & Etxebarri Liburu-Argitaletxea
TF. 94 430 15 00
ALGORTA

**Getxoko Andra Mari
Gasolindegia**

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

**Iñaki
Bixitegia**

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Vilamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Teléboa 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[liburuak]

Zalduaren “onenak”

Hogei urteotako ipuinen arteko hautaketa da **Ipuinak. Antologia bat** liburua

«**Uste dut** nire historialari senagatik ematen dieldala garrantzia urteurren biribilei, nabiz eta funtsean badakidan hamarkaden kontu hori guztiz arbitrarioa eta kontingentea dela» adierazi zuen Iban Zaldua (Donostia, 1966) *Ipuinak. Antologia bat* (Erein) lana aurkeztu zuenean. Izan ere, *Veinte cuentos cortitos* bere lehenengo liburua argitaratu zuenetik 20 urte bete ziren iaz eta 10 urte Gerardo Markuletagaz batera euskaraz idatzitako lehenengoa, *Ipuin euskalduna*, plazaratu zenetik; horrez gainera, aurtun bete du 10. urteurrena ere bakarka idatzitako lehenengoa, *Gezurak, gezurrak, gezurrak* liburua. Hala, 20 urteotako bere ipuingintza bir-

«**Poltsikoko edizio merkean kaleratu dute lana eta kontu barriak ere baditu»**

pasatu eta “onenak edo esanguratsuenak” diren 34 ipuin aukeratu ditu Zalduak *Ipuinak. Antologia bat* osatzeko. Donostiarraren esanetan, «*antologiak idazle askoren bibliografia osatzeko abiapuntua eta akuilua izan dira niretzat; beste bertute bat ere badute: egile batzuen aurkako txerto merkea ere izan daitezke, behin antologia irakurri eta gero jabetzen baitzara ez duela merezi egilearen beste ezer irakurtzea*».



Iban Zaldua (Donostia, 1966)

Halere, lan honek kontu barriak ere baditu, barbarako: *La isla de los antropólogos y otros relatos* liburutik aukeratutako 4 ipuinak euskaraz daude (hiru Angel Errok itzuli ditu), eta guztiz barriak diren 3 testu ere sartu dituzte, Zalduak berak idatzitako *Ipuingintzaren dodekalogoia* eta izenburu bako kontrazaleko mikroipaina, eta Ur Apalategiren hitzaurrea (analisi kritikoa, fikzio estiloan). Gainera, Erein argitaletxeak *Poltsiko.e* sailean kaleratu du liburua, hau da, poltsikoko edizio merkean (8 euro); Zalduak dioenez, hori ere antologia plazaratzeko beste arrazoi bat izan da. ○

Informazio gehiago: www.erein.com

liburuak



Goizuetan bada gizon bat
Patziku Perurena
Alberdania

Mikel Laboak kantatutako bertsuetatik abiatuta, Trabukoren (h)istorio/a tristea kontatzen digu Perurenak ikerketa lan honetan. Goizuetako paisaiak eta lagunak dira protagonista nagusiak, Euskal Herriko bizimoduaz asko esango digutenak.



Tronpatxo
Antton Kazabon
Aizkorni

Kenyako oihanetan bizi den Tronpatxo elefantea kezkatuta dabil, tronpa txiki lotu zaiolako; eta ezin ditu zuhaixkak ipurditik atera, Tronpeok laguntzen dio horretan. Baina oihaneko beste lagun batzuek barre egiten diote Tronpatxoren arazoari...

[kirola]

Olatu-maitaleen hitzorduak

Surf Pro Junior (Atxabiribil) eta Bodyboard BBK Pro (Arriatera) txapelketak Sopelan



Bodyboardeko Munduko Zirkuiturako puntuagarria da Sopelana BBK Pro txapelketa

Udan zelaia gailendu ohi zaio hondartzara; eta olatu urdinen askatasuna, edozein koloretako baloiren eta kamiseten erregetzari. Surfa edota bodyboarda dira, gura ala ez, nagusietan nagusienak. Kirol horietan eskualdeko hondartzak primerako protagonista dira; eta horien artean Sopelak leku berezia dauka. Egunotan, olatu-maitaleek eta olatuetako zaldunek egundoko aukerak izango dituzte bai surfagaz bai bodyboardagaz gozatzeko, Sopelana Surf Pro Junior eta Bodyboard Sopelana BBK Pro txapelketak hitzordua ipinita dago-eta.

Sopelana Surf Pro Junior txapelketan 20 urtetik beherako europar surflari onenak lehiatuko dira. PeñaTxuri Surf Elkartearen ekimenez antolatzen da txapelketa, aurtun laugarren ekitaldia, Europako zirkuituko bigarren proba puntuagarria izango da. Hilaren 29, 30 eta 31n eta abuztuaren 1ean (azkeneko saioak) jokatu da Atxabiribil hondartzan eta antolatzaileen esanetan 160 surflarik parte hartuko du, gizonetako gehienak, emakumeetako 30 inguru izatea aurreikusten dutelako.

Bestalde, V. Bodyboard Sopelana BBK

Pro txapelketa Arriatera hondartzan egingo da abuztuaren 19tik 22ra. Euskal Bodyboard Eskolaren ekimenez antolatzen den proba Munduko Zirkuiturako puntuagarria da eta 120 bodyboardlari onenek jardutea espero dute antolatzaileek. Gainera, aurtun ere, horren bezperan (hilak 17-18) bodyboardeko junior mailako txapelketa antolatuko dute.

Txapelketa bateko zein besteko anto-

«**Atxabiribil hilaren 29, 30 eta 31n eta abuztuaren 1ean; Arriatera, abuztuak 17-22»**

latzaileek jakinarazi dutenez, eurek ere nabaritu dute krisiaren eragina, besteak beste, babesleak eta diru-laguntzak aurkitzeko larri ibili dira-eta aurtun. Horren erakusle ere badira, barbarako: Europar junior mailako Surf Zirkuituak 6 proba izatetik aurtun 4 baino ez dituela izango; eta Sopelako bodyboard txapelketa aurtun gizonetako begirakoa baino ez dela izango. ○

Informazio gehiago:
www.ptxsurfeskola.com
www.ebeskola.com

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

**KANTXA
KIZOL moda**




350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, S.L.



• MARKA GARATIAK
• 24 OREKUTAN ERANTZUNA
• 3 HILABETEKO GARANTIA
• 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
• BITELEBA DOAN

Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 - ALGORTA

Jokin Aspuru > Getxophoto argazki-jaialdiko zuzendaria

“Getxophoto ez da kontsumo hutsezko jaialdia, parte hartzea ahalbidetzen dugu”

Irailean argazkiz beteko du Algorta Getxophoto jaialdia. Aurten Ereaga eta Portu Zaharra artean kokatuko dituzte argazki gehienak; izan ere, herria hankaz gora dago. Algortako hainbat aretotan ere egongo dira ikusgai erakusketak eta beste hainbat ekimen original ere prestatu dute, argazkiak nonahi goza daitezkeela erakutsiz.

—Laugarren urtea du Getxophotok, ez da ohiko argazki erakusketa.

—Guretzat argazkigintzak interesa dauka hizkuntza, komunikaziorako tresna eta gozamen estetiko bezala. Fotografia ikus-teko ohiko bideak daude: argitalpenak, museoak etab. Ahalegintzen gara bestelako euskarriak topatzen argazkiak erakus-teko, eremu publikoagaz lotuz. Eremu horri beste erabilpen batzuk emoten aha- legintzen gara, egun batzuetan bestelako funtzioa izan dezan. Bestalde, kalean argazkiak ipintzeaz gainera, bestelako formatuak ere bilatzen ditugu. Getxophoto- ren helburua ez da kaleak polit ipintzea; herrian esku hartu eta, ahal dugun heinean, eraldatu gura dugu egun batzuetan.

—Aisiari gorazarre egingo diozue.

—Garai honetan lan handia egin behar ei dugu krisia gainditzeko. Erabaki dugu aisiari tarte egitea eta erakustea zelan be- tetzen den aisia garaiotan. Ez da aisi arrunta, apur bat muturrekoa da. Eraku- tsi gura dugu jendeak aisialdian egiten duena zelan bihurtzen den ia-ia gaixota- suna. Programazioan ikusiko da hori.

—Komisario barria daukazue, Frank Kalero, zergatik aukeratu duzue?

—Bartzelonako mutil gaztea da baina ibilbide oso interesgarria egin du, oso



“Aisiari gorazarre” egingo dio aurtengo Getxophotok: www.getxophoto.com

luzea; izan ere, oso ipurtarina da. *Ojo de pez* aldizkaria sortu zuen, argitalpen erre- ferentea den. Gaur egun Berlin eta New Delhi artean bizi da; Asia osorako argaz- ki aldizkaria sortzen dabil. Orain hiru urte Sao Paulon bizi izan zen eta *Bice* aldizkaria abiatu zuen. Komisario lanetan ere jardun izan du. Gaztea da eta beste

dauka, komisario batek egindakoa, baina jendearen partaidetzagaz uztartu gura dugu. Bideak zabaltzen ditugu jendeak Getxophoton parte hartzeko, jaialdia bere egin dezan. Horretarako antolatzen ditugu *Pop* proiektzioa (jendeak bidalita- ko argazkiakaz osatua), bisita gidatuak, lantegiak, *Bertsophoto* etab.

“Helburua ez da kaleak polit ipintzea; herrian esku hartu eta eraldatu gura dugu egun batzuetan”

era batera ulertzen du fotografia. Gaine- ra, aditua da teknologia barrietan eta kalearen erabilpenean.

—Jaialdia ez da mugatzen erakusketeta- ra, ez behintzat argazkiak zintzilikatze- ra.

—Kanpoan egiten dena Getxora ekar- tzen ahalegintzen gara, baina inguruan egiten denari ere lekua egiten diogu. Ez dugu kontsumo hutsezko jaialdia egin gura. Ondo zaindutako programazioa-

—Irailaren hasieran izango dira horiek, baina erakusketak hilabete iraungo du.

—Erakusketak urriaren 3ra arte manten- duko ditugu, baina irailaren 2tik 5era gauzatuko dira ekimen horiek denak eta gehiago, Jarduera Astea. Hainbat egile etorriko da beren lanak bertatik bertara erakusten. Oso ekimen politak prestatu ditugu, Getxophotoko alderik interesga- rriena dira. o



Ekimenak

• **Opening (inaugurazioa).** Irailaren 2an, Areetako Andres Isasi Musika Eskolan:

Martin Parr argazkilariagaz eta beste hainbat egile gonbidatuz bilkura.

• **POP (herri-)Proiektzioa:**

Hiri erdian ipinitako pantaila erraldoian gura duen orok bere argazki gogokoena erakusteko aukera izango du.

• **Bertsophoto:**

Bertsolaritza eta argazkilaritza uztartzen dituen saioa.

• **“Argazkirik atera ezean hilko naiz” lantegia, irailaren 3an eta 4an:**

Txema Salvasek gidatuko du. Argazkigintzagaz daukan harremanaren inguruko gogoetarako giroa sortuko du.

• **Ibili (bisita gidatuak):**

Norberak egin ditzakeen irakurketek gainera, Frank Kalerok eta beste argazkilariek gidatutako bisita gidatuak egingo dituzte. Lanei, kokapenari eta egileen gaineko informazioa emongo dute.

• **13-16:**

Gazteek aisian egiten dutena erakutsiko dute eurek egindako argazkiakaz; horma-irudi batean ipiniko dituzte.

• **Argazki(ni)kiak:**

Skunk Funk eta The Balde aldizkariagaz alkarlanean. Kamisetetan inprimatutako argazkien erakusketa ibiltaria.

• **Informazio gehiago:**
www.getxophoto.com

Ondoko argazkiak Getxophoton ikusgai:

1. Phil Toledano, *Gamers Sails*
2. Naoimi Harris, *America Swings*
3. James Mollison, *Rod Stewart*

Victoria Bengoa > Arriluze

“Gu pozaren pozez ibiltzen ginen Arriluzen zegoen parkean baloiarekin jolasten”



“Nahiz eta eguraldi ederra denean autoz gainezka egon, oraindik merezi du etortzea”

Hautzaroen leku kuttun asko neuzkan, edo hobe esanda, gurasoek zeuzkaten gogoko bazter ugari. Uztaileko aitaren herrira joaten ginen eta izeko Teresa-ren txakurrekin “zenezetara” jolasten genuen. Gure irudimenean Txabi, belgiar artzain-txakur beltza, zaldi bihurtzen zen eta Marki, alemaniar artzain-txakurra, zezen. Gizajoak, hori bai pazientzia, hori! Abuztuan, aldiz, hondartzara joaten ginen, aititeren herrira. Oso hareatza handia eta bakartia zen, jende askorik gabe, ez gaur bezala. Hain zen bakartsua non Basamortua deritzon gunean harearen gainean zeuden oinatzei esker zenbat lagun pasa ziren jakin baikenezakeen.

Baina udaberrero, negu luze eta latza pairatu ondoren... Arriluzera etortzen ginen. Negu amaiezinen ondoren Bilbotik Getxora etortzen ginen itsasoa ikustera, Bilboko kutsaduratik ihes egitera, haize garbiagoa arnastera, eguzkitan egotera, belarrez eta hareaz gozatzen, Getxora bideratzen ginen, aita, ama eta hiru neba-arrebak, Markes Arriluze Pasealekura, hain zuzen ere. Eguraldi onaren hasiera zen. Urteko momenturik maiteena zen eta oraindik da, egia esan.

Igande goizetan, aitak familia osoa jaso eta Seat 600 autotxo beigan sartzen ginen, gure manta urdina maletategian eta bikien haur-kotxea gainaldan. Itsa-

sadarraren ondoan zegoen errepidetik auto-ilara jasaten genuen, bai joateko bai etortzeko bidean, baina gu pozaren pozez ibiltzen ginen Arriluzen zegoen parkean baloiarekin jolasten eta gozatzten.

Orain Areetan bizi naizenez, Arriluzera egunero joan naiteke, oinez, auto-ilarak nozitu gabe. Eta oraindik gaur egun familia asko etortzen dira parkera umekin jolastera, umeak goza daitezten. Nahiz eta eguraldi ederra denean autoz gainezka egon, oraindik merezi du etortzea. Nik neuk seme-alabarik izango banu udaberrero Arriluzera ekarriko nituzke, aita zenak bezala, dudarik gabe. ○

Izarraitz taberna

Plentziako giroa hazten eta hezten



Iñaki Sanz eta lagunak Izarraitzen

Gainontzeko herrietan ez bezala, bere herriko giroak azkeneko urteotan bizi izan duen gorakadaz harro dagoen tabernaria aurkitu dugu Plentzian. Iñaki Sanz 2007an hasi zen portu ondoan dagoen Izarraitz tabernan; askok udatiantzako herria dela uste badute ere, gazte plentziarrek herria bizirik dagoela eta giroa asintzeko gogoak dituztela erakutsi dute.

Egunean zehar zein afalorduan pintxoak, bokatak, txitxi-burruntziak, hamburgerak eta bestelakoak jateko aukera eskaintzen dute Izarraitzen. Badaukate bezeroen artean arrakasta berezi duen platera ere: Txisfriskis patatak, gazta, maionesa eta hirugiharraz: “*Labean azkeneko ukitua emoten diegu*”.

Gauetz, lagunartean egoteko eta DJak jarritako musikaren erritmora dantzatzeko,

giroa, girorik ez da falta: “*Oso giro polita egoten da*”. Sanz aitazindaria izan da Plentziako gazte giroaren “berpizkundean”: “*Gauaroa asko aldatu da 2007tik on. Beste taberna bi zabaldu dituzte eta gorakada nabarmena egon da*”. Parranda bila alboko herrietara joatea gurago zutenak herrian gelditzen dira orain: “*Inguruko herrietakoak ere hurbiltzen dira ondo pasatzeko asmoz; Urduliz, Sopolana eta abarretik; Bilboko lagunak ere etortzen dira*”.

Uztailean, Karmen Jaien eta *madalenen* txanda izan da Plentzian; orain, *sanantolinak* heldu arte jai handirik ez badago ere, Izarraitz arduratuko da gauari musika jartzeaz: “*Saninaziotan jai berezia egiten dugu eta koadrila handia bil-tzea espero dut*”. ○

Areatza 24 (portu ondoan), PLENTZIA
Tf. 94 677 55 47

ARTAZA ETXEA
JATETXEA

- gosariak
- txuletoia • bakailoa
- arrain freskoa

asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz

Erreserbak: 94 463 03 92
Artaza Etxea Enakina. Gabele erabiltzen sarean • LEIOA

JUAN-MARI

Harategia eta txarkuteria

ARTESANA

LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA

KONTXI

ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiatzpiko Iberiko, Pate eta Gaztazietan!!

Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93

GOZOLABEA

GALDARETXE

- Maidagan 35, GETXO Tf. 94 491 11 25
- Mayor 17, AREETA Tf. 94 464 77 29
- Sabino Arana 67, LEIOA Tf. 94 464 40 58
- Telletxe 13, ALGORTA Tf. 94 491 51 44
- Sabino Arana 9, SOPELA Tf. 94 676 52 58

Toponimoa > Arriluze

Arriluze (kalea):

Arriluzeko markesaren titulua 1918an eman zitzaion Fernando de Ybarra y de la Revilla jaunari. Aipatutako jauna, politikaria eta enpresa gizona, La Naval eta General Electrica Española-ren sortzaileetako bat izan zen eta 1936ko irailaren 25ean hil zuten, semearekin batera, Cabo Quilates itsasontzian. Egun horretan matxinatutako abertzale burututako Bilboko bonbardaketengatik haserre, ideologia ezkertiarreko jende aldra handi bat, hainbat soldau lagun zutela, kartzela eta horretarako erabiltzen ziren itsasontziak hartu eta hainbat preso eskumatar hiltzen aritu ziren, hari eta Euzko Jaurlaritzak sarraskia gelditzeko gudariak bidali zituen arte. Bere etxea Arriluze gainean zegoen, Begoñako gotorlekua egondako lekuan, hain zuzen.

aldizkaria etxean jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak..... Kalea/zenb.....
Herria..... e-mail..... Telefonoa.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito)

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Urbe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa. 48991 Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 94 491 13 37

ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Amilazo z.g. • T.F. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangoberri 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA

HARTU TXANDA

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez penbasa"

Piztas - Fruitu lehorak - Aldizkariak - Lintamariak

Orduña Mendatea 1 Telfeteke 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
GETXO ALGORTA

Solaguren Txinatarra

TXINAKO BENETAKO ZAPOREAK

QI SUKALDARIA



Astelehenetik Zapatura
20:00-23:00

BERTAN JASO eta
ETXERA EROATEKO ZERBITZUA

944 306 177

Bilbao-Pleña errep. 18.km, GETXO (Gasolindegia ondoan)

[horoskopoa]

<p>URA</p> <p>(Abenduak 21 urtarrilak 18) Ura maite duzu zure horoskopoparen izenak dioten bezala. Uger egin duzu noiz edo noiz urpean? Itsaspeko mundua zoragarria da, orain duzu sasoirik hori onena ezagutzeko.</p>	<p>OTSOA</p> <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Bihotzeko azukre koxkorra ate joka daukazu, eta zu konturatu ere ez. Zabaldu ondo begiak, laster ezagutuko duzu eta. Zer, goxoa gustuko ez? Bada, bihotzeko gatza eta pipermina ere izan liteke...</p>	<p>ADARRA</p> <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Etxean egun osoa pasa ordez ez zenuke lagunakaz bueltaxoa egitera joan behar? Sargoria dago, baina etxean haizagailuaren alboan egotea baino hobe zenuke hondartzan freskatzeko.</p>
<p>AITZURRA</p> <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Libururen bat irakurri gura baduzu eta ez badakizu zein aukeratu, irakurtzea gogoko duen lagunen batengana jo beharko zenuke. Hondartzarako oso aproposak dira eleberri potoloak...</p>	<p>HOSTOA</p> <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Batzuetan irudituko zaizu koadrilakoek begizkoa-edo egin dizutela, baina denek bihotzez maite zaituzte. Etxekoen artean txartulertzeak gerta litezke, hartu arnasa eta berba egin eurekaz lasaitasunez.</p>	<p>EGUZKIA</p> <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Kirola egitea ondo dago baina gorputzari astinduz handirik emon barik. Kontuz ibili, ez nekatu larregi eta ahalegindu lesiorik ez izaten. Herrietako festetako parrandak ere kirola ei dira...</p>
<p>GARIA</p> <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Etxean hobekuntzak egiteko bala beharko zenituzke opor egunak, gero beharrez lepo ibiliko zara eta. Baina kontuz, pasa barik; aseden hartzea eta burua askatzea da-eta oporren helburu nagusia!</p>	<p>LASTOA</p> <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Udako lasaitasunagaz aspertu antzean edo, abentura bila urtengo zara, eta aurkitu bere! Oso urrun joan barik gainera. Askotan, aldameneko norbaitegaz gerta ohi dira unerik dibertigarrienak.</p>	<p>IRATZEA</p> <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Bidaiek garrantzi handia hartuko dute hil honetan, asteburuetako opor txikiak batez ere. Eutsi horiei beldur barik, leku zoragarriak ezagutu eta une barregarriak biziko dituzu-eta; jende elegantea ere ezagutzeko aukera izango duzu.</p>
<p>META</p> <p>(Irailak 17 urriak 16) Une txar horri aurre egitea lortuko duzu azkenean, baikortasunez beteta. Aldaketa garrantzitsuak gertatzen dabilta zure bizitzan, beraz, ez lorkartu, konturatu orduko igaroko dira bestela.</p>	<p>HAZIA</p> <p>(Urriak 17 azaroak 15) Aste ederrak izango dira lagun barriak egiteko. Harreman horiek bala izazazu zure ideia mirezgarriak azaltzeko, agian norbaitek kasu egin eta helburuak betetzen lagunduko ditu.</p>	<p>NEGUA</p> <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Aldaketak bizi dituzu, eta umore txarrak ondorio okerrak ekar diezazkizuke. Halere, zure edertasunak eta xarmak bizitza baikorki erosten lagunduko dizute; baina kontuz, harrokeria barik gero!</p>

Koskakideak
behar ditugu

Bidali zure datuak
posta elektroniko edo
posta arrunt bidez

KOSKA
irratia 108 fm

12€ urtean !!
€1 hilean !!

keekoirratia@koskairratia.com
1/ Ametzil 6 4. pisua 2. dor.
Algorta (Bizkaia)
www.koskairratia.com

Usategi
kafetegia

Usategi parkea z.g.
Algorta

*Tf. erretabak: 94 460 64 13



HITZ GURUTZATUAK

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

Ezker eskuma

1. Voltmetro, gas hodi edota arku elektrikoetan, generadore elektrikoaren polo positibo zein negatiboan finkatutako eroale elektrikoaren muturretako bakoitza. 2. Musika ikurra. Osoro, erabat. 3. Fosforoaren ikur kimikoa. Oharra idatzi. 4. ... batez, une batez. Argizagi, astro. 5. Edateko gogoa. Erbioaren ikur kimikoa. 6. Germanioaren ikurra. Euskadi, sabindarren erara. 7. Txerri ama. Oinarrizko edaria. 8. Zain, espero. Zuhazpeko babesgune, gerizpean babesteko toki. 9. Ez onak, ez egokiak. 10. Urrats handiak eginez.

Goitik behera

1. Ogibidea, lana. Azkenekoa. 2. Lotan. Igeri eginez. 3. Txirindularitza itzulietan, egunero egiten den lasterkaldia. Musutruk, dohainik. 4. Nahiz aitonen seme ez izan, bere ondasunengatik, eta batez ere lanetik, bizi zena. 5. Tonaren laburdura. Urruma eginez, marrumaka. 6. Edari alkoholdun. Izabako. 7. Pluralean, Eukaristiako ogia, gaur egun gari-irinezko olata txiki biribila dena. Ardi hitz elkartean. 8. Joaki dira. Aitzin. 9. Zortzi aurpegiko poliedroak. 10. Pertsona baten izaera, bizitzan eta gainerako pertsonen aurrean aritzeko moduari dagokionez. Errepikatuz, gorotza.

Soluzioa

V	K	E	T	V	G	N	V	Z		
K	V	H	R	V	K	S	V	K		
	O	H	V	V	O	I	V			
V	H	U	V	M	V	H				
I	D	V	K	Z	E	G	E			
R	E	V	R	I	A	R	E			
R	V	Z	I	R	V	A	L			
U	V	T	N	P	V		P			
I	S	O	K	I	O	T	A	N		
O	D	O	A	R	O	K	T	E	L	E

ez hain gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Zein argazkilariren lana ekarri dugu 180. zenbakiko *Fotografia* atalera?

> Aurrekoaren erantzuna: Konrado Mugertza
> Irabazlea: **Igor Perez de Anuzita***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

Zein animalia ikus daiteke 8. orrialdean?

- Txerria
- Astoa
- Sugea

> Aurrekoaren erantzuna: Trena
> Irabazlea: **Amets Erkoreka***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

SARIA **Argia**

astekariaren biru hilabeteko harpidetza doan



SARIA **Argia**

jolasak eta jokuak



JOSE MANUEL AMUTIO "TOLETE"-K UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

ALGORTAKO PORTU ZAHARREKO JAIETAN, 1940

Argazkiko lau mutilak, Portu Zaharrekoak, abuztuko auzoko jaietan hor dabilta kantatzen edo kantatzeko prest, gitarraz lagunduta. Musika arloan Valero zen jantziarena, gitarra ondo jotzeaz gainera, oso ondo kantatzen zuen baxu-ahotsa. Dantzan ere badakigu ez zirela begira lotzen lau adiskide horiek. Laurok, urte batzuk beranduago, "Chunga" taldean ibili ziren 1948 aldera (UK 129). Taldean lau mutil eta neska bi izanda, hiru bikote osatu ahal izateko arazoa berehala konpondu zuten; mutiletako bat neskaz mozarrotu zen eta horrela ipini ziren hiru bikoteak argazkirako, ume batzuk ikusminez begira zituztela. Argazkiko atzealdeko horma, ia seguruenek, Portu Zaharrean zegoen aspaldiko "lavadero"koa (harraskakoa) da. ○

Zutunik: ??, Serafin Galin (GB), ??.
Makurtuta: Valero San Martin (GB), Pedro M^a Royo "Navarrito", Jose Manuel Amutio "Tolete".

AINTZANE URIA > Luhartz musika taldeko abeslaria eta soinu-jolea

“Lau urtegez eskusoinua eskatu nuen; famatua izango nintzela-eta”

Testua: **Zuberoa Iturburu** Argazkia: **Luhartz**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Nekaezina eta burugogorra.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Telesail bat esango dut, gustuko dut eta: *Friends*.

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?

Medikuntzan. Ez dut balio, odolak... Baina gura nuke balio izatea; erizaintzan adibidez, gaixoen aurrean uneoro umoretsu egon ahal izatea.

Txikitán zer izan gura zenuen?

Lau urtegez amari esan nion: “ama, erosi eskusoinua, famatua izango naiz-eta!”; eta soinu-jole nabil! Beti argi izan dut musikan jardungo nuela.

Badakazu ohitura txarren bat?

Gauzak larregi pentsatzea, arazo denak handi bihurtzen dira niretzat.

Eta aitor dezakezun bizio bat?

Ardo ona, esango nuke; niretzat ona dena behintzat.

Errepikatuko zenukeen bidaiarik badago?

AEBetara, Euskal Jaietan jotzera joan gara askotan; jendearen berotasunagatik bueltatuko nintzateke.

Animalia bat izango bazina, zer izango zinateke?

Txoria, askatasuna daukazulako.

Zer barik ezin zaitezke bizi?

Ilusio barik.

Eguna ala gaua?

Agian gaua, iluntasunak ematen duen intimitateagatik.

Parrandarik politenak non?


Durangoko Goienkalen. Ondo pasatzeko ez dut gehiegi behar, betiko lagunak, betiko tabernak eta ardoa; horrekaz dana eginda dago.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?

Durango, bertan eman ditut nire 31 urteak. ○

LABURREAN— Herriko festak alaitzen dizkigute erromeriek eta Aintzane Uriak (Durango, 1979) asko daki horren inguruan; izan ere, Luhartz taldean abesten du. Euskal Herriko plaza gehienak ezagutzen ditu, ehunka kontzertu eskaini baitu 1999az geroztik; orduan hasi zen Luhartzegaz. Gorlizko jaietan ere izan da uztail amaieran. Sortzez eta bizilekuz durangarra da, baina Uriak geure eskualdea ere ondo ezagutzen du, Algortako San Nikolas ikastolan irakasten baitu Musika eta Eskusoinua. Alaitasunez erantzun die galderei, taula gainean erakusten duen alaitasun berberagaz.

abuztuaren 10a
SAN LORENTZO



Animatu, euskaraz eskatu...
eta eraman opari ugari



Euskaraz aukera paregabea.



Getxo
bizi ezazu



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Euskara Zerbitzua
Getxoko Udala
94 466 00 10
euskara.zerbitzua@getxo.net
www.getxo.net

ANISARI GORAZARRE / ELOGIO DEL OCIO
GETXOPHOTO 2010
ARGAZKI JAIALDIA / FESTIVAL DE FOTOGRAFÍA

JARDUERAK: IRAILAK 2 - 5
ERAKUSKETAK: IRAILAK 2 - URRIAK 3
ACTIVIDADES: 2 - 5 SEPTIEMBRE
EXHIBICIONES: 2 SEPTIEMBRE - 3 OCTUBRE

WWW.GETXOPHOTO.COM

**GETXO
PHOTO**



antolatzailea / organiza

BEGIHANDI

babesleak / patrocina

 **Getxo**
UDALA • AYUNTAMIENTO

 **BFA
DFB**
Bolaletorri Akademiak
Diputación Foral de Bizkaia
Elkartasuna
Bilboko Udalaren Kultura

 **ELKARO JAIPLAMITZA
GOBERNO VASCO**
Ikuntza
Departamentuaren Kultura

bbk

laguntzailea / colabora

 **uribe kostako
aldizkaria**